



_elkarrizketa:

XABIER SANTXOTENA >
“Eskultura bakoitza poema bat da. Niretzat artea espresibidea da” 16.or

“Buru erraldoi bat egiteko 6-8 hilabete behar dira”

Kirola

Jon Larrinaga eta Aritz Arberas Euskadi Fundazioan arituko dira 10. or.

Sozioekonomia

Langabezia %146,65 igo da 2012tik 2013ra eskualdean 6. or.

Iritziak:

JULEN ARZUAGA 2. or.
JUAN LUIS ESPAÑA 6. or.
MAIDER IGLESIAS 7. or.
IÑAKI ISASI 10. or.
MIKEL AYLLON 12. or.
MATEO PAGA ZAURTUNDUA 17.or
ITZIAR URKIO 20. or
JUAN JOSE IBARRETXE 16. or

aiaraldea



Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Urtarrilak 16 ///
OSTEGUNA
7. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Lamuza parkeko ondarea gainbeheran, Aldundiaren inbertsioen zain



GEHIGARRI BEREZIA: 2013 urteari albiste eta iruditan errepassoa eta Aiaraldea Irratiko saioen eta parrillaren aurkezpena 14-18 or.

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2 LAUDIO
www.grafiksarea.com
info@promo-grafik.com
Tel: 94 672 65 43
M: 615 75 85 92



GUREKIN ERE EUSKARAZ!

ESKA IEZAIGUZU BEHAR DUZUN PRODUKTUA ETA LORTUKO DIZUGU///

KAMISETAK, OPARIAK, USB-AK, KOPAK, POLTSAK...
SERIGRAFIA, BORDATUA, BINILOA, INPRESIO DIGITALA

_iritzia



Julen
Arzuaga
ABOKATUA

_Balkoitik

Aste zuri-beltza

Pasa den astea hasi genuen preso ohien adierazpen inportante batekin, beren kide presoen bide beretik, positibo, eraikitzaile. "Ez da hau zailtasunen eta oztopoen atzean gordetzeko unea" zioten. Barne Ministroaren erantzun berbala, adierazpena "nazkagarria" zela. Erantzun faktikoa, presoan ordezkariak atxilotzea. Argi non erraztasunak non zailtasunak. Argi non bide laua, non oztopoak. Altxatutako zubiak estatuak dinamitatu nahi zituen.

Eraman zituzten ziega ilunetara. Velascoren erabaki ustel batek ekarriko zituen EAJ eta EHBildu adostasun berrietara. Alderdi eta eragileen artean bi jarrera egiazatu dira: arduragatik mugitu eta arduragabekeriaz posizio zaharretan gertatu direnak. Eroso bezain alferrikakoa.

Bi irudi Bilboko kaleetan. Okupazio militar batena, kotxe blindatuek eta guda-armez egindakoa. Okupazio baketsua, itxaropenez bete bigarrena. Milaka herritarrek hautua egin dute inposaketan edo giza eskubideen artean, arazoak betikotu edo konpontzearen artean, gatazka edo bakearen artean... argia eta ilunaren artean. Egindako urrats txikiak ibilbide luzea izan dezan.

Baten batek esango du manikeismoan erori naizela. Ona-txarra biko sistema errazean. Agian.

Baina aste honek nabardurantzako leku gutxi izan du, griben paletarik gabea: zuri-beltza. Kontraste handiko astea. Ziega ilun baten zirrikitutik sartzen den eguzki izpi batena bezalakoa.



Marta
Dendaria

Jendar tean hainbeste gauza aldatu behar dira ezinezkoa dela zerrrenda bat egitea.

Lana eta osasuna nahiko nituzke, baina gauzak eskatzen jartzeko egunerokoarekin nahikoa daukat.



Mariano
Kamioilaria

Ez dut inolako esperantzarik, gauzak txarretik okerragora doaz: ekonomikoki, laboralki, politikoki...

Nire burua ahalik eta gehien errealizatzea, baina ez dago aukera askorik, hondamendi bat da. Herrialdez aldatzea gustatuko litzaidake, edo gutxienez independenteak izaten utz diezagutela. Eta jakina, liga eta kopa irabazteak!

? _GALDERA

Zer eskatzen diozu urte berriari?

BIDEA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita



Josune
Etxeko Langilea

Pertsonalki iaz bezala egotea. Gutxienez, erlatiboki ondo pasa dudalako urtea, gorabehera handirik gabe.

Orain garrantzitsuena zera da: ni zoriotsua izatea eta ingurukoak ez izorratzea, horrekin nahikoa daukat.

Oso esaldi polita da baina horrekin konformatzen naiz, serio-siki diotsut.



Josu
Langilea

Alde batetik lana mantentzea. Eta, bestetik, etxetik independizatzeko aukera. Neskalagunarekin bizitzera joatea gustatuko litzaidake.

Eta ea hemen nahi ditugun pertsonak bueltatzen diren!



Luis Martin
Langabea

Desioak? Mundua hobeto joatea. Baina txarto joateaz arduratzen den jendea gehiengoa denez...

Urte honetan gauzak aldatuko direla esaten dutenek ni ez naute engainatuko.

Gobernua alda dezatela eta justua izango den norbait sar dadila, politikaria ez bada ere, ondo egingo duena.

TWITTERen

#albisteizanda

@urtzai: Arrankudiagan oraindik honelako irudiak ikusten dira. #Latza! @aiaraldea

@Aiala_S_C @aiaraldea Gotzon Martinek Orozkoarra gurpil bat zulatu du eta gero jaitziera bat eduki du. Zor-te txarra. Josu Albizua hama-bostgarrena #CECX

@Aiala_S_C @aiaraldea @radioayala @Radiollodio Julen Latorre amurriarra zortzigarrena izan da Espainiako Txapelketan Segorben.

Murgako industrialdean istripua gertatu da, kamioi bat irauli da, ez da zauriturik egon **@aingeru_18**

@Sustatu <http://Aiaraldea.com> web-guneak 282.274 bisita jaso ditu 2013 urtean ... via **@aiaraldea**

@Aiaraldea Aiara D.T.-ko egutegiak salgai. Modelo politenekin! 10€. Reforren, Kioskoan ta Garoa ta Sanz liburudendatan

@aiarladea ELA sindikatuak adierazi du eskola garraioko begiraleen greban %90eko erantzuna jasotzen ari dela Bizkaian.

TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitate@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkaria ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

LAGUNTZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA
Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Nerbio Kalea 1, 3. esk. Laudio, Araba, 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152



_gutunak

Gero arte, Urruti!

Bego Ugarte eta Jonan Altube (Laudio)

Igor Urrutikoetxea Bilbao joan zaigu. Gure Igortxu, Igor txikerra, Urruti handia. Asko gara, Laudion zein Aiaralde osoan, Igor ezagutzeko aukera izan dugunok, LAB sindikatuan, unibertsitate garaian, zinegotzi lanetan, Askapena erakunde internazionalistan...

Borrokalari tematia, adiskide zintzoa, abertzalea eta iraultzailea, langile nekaezina, bizizalea, bidaiaria...

Mundua harrotasunez euskaldundu egiten duten horietakoa, euskal nazioaren eta mundu osoko langileriaren enbaxadore paregabea noiz-nahi, nonahi, aurreneko lubakian beti.

Oraingoan ez zara itzuliko zure liburu, mitin, artikuluko kontaktu zerrrenda, marroi, hitzaldi, proiektio eta saltsa guztiekin.

Azken portura iritsi zara. Hemendik aurrera guk arduratu beharko dugu. Saiatu bai, behintzat. Zelangoa egin diguzun oraingoan, Igor. Txiki utzi gaitzazu.

Jende xumearen egun handira arte, Urruti. Eta zuri Gotzone, musu handi mordoa.

Atxilotuak

Iker Ibarrondo (EGI)

Arabako Euzko Gaztedi EGI-k atzoko egunean Guardia Zibilak egin zituen zortzi atxilotetak salatu nahi ditu. Ezin dugu ulertu ezta babestu, egun batzuk lehenago bide demokratikoen erabilera onartu duten pertsonen atxilotzea.

Alegia, atxiloteta hauek ez diote laguntzen bake prozesuari, bake bidean oztopoak jartzeko egindako operazio polizial bat dirudi, gauza oso kezka garria izanez.

Bidegabekeriak beti bidegabekeri, datorrenetik datorrela, hori dela eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu atxilotuei.

Ondorioz gogoratu nahi diegu espainiar gobernuari, euskal gizarteak ilusioz eta itxaropentsu bizi duela ETaren su etenaren ostean ireki zen garai berria.

Horregatik espero dugu, espainiar gobernuaren epai organoak beraien aktuazioen erdigunean bilakatzea hiritarron nahiak, gure herriak espero duen bakea lortu dezan.

_herriz herri

Laudio

Okondo

Lamuza parkeko ondare historikoa galtzeko arriskuan



Lamuza parkeko kasinoa, musika etxea eta Ugarteko dorretxea konpontzeko eskatu du udalak Argazkia: Iban Pagalday

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Abenduan zehar Musika Etxeko eraikinaren zatiak erori dira espaloira. Hori dela eta, Udalakinguruak itxi ditu istripuak ekiditeko ⁽¹⁾. Koldo Zabala zinegotziaren aburuz ⁽²⁾, arriskua begi-bistakoa da eta horren ondorioz Udal taldeak Arabako Foru Aldundiko Ogasun diputatuarekin bilera egin zuen abenduaren 31n, eraikina Foru Aldundiarena baita.

Hitzorduan Laudioko ordezkari politikoei gogoratu zioten Aldundiari Plan Berezia prestatu zuela parkea eta inguruak berreskuratzeke, baina krisia dela eta bertan behera utzi zuela.

Plan horretan, besteak beste, Musika Etxea, Kasinoa eta Ugarteko Dorretxearen konponketak jasotzen dira.

Ezinbesteko urratsak

Koldo Zabala eta udal teknikariak Musika Etxeko hormek arrakalak ⁽³⁾ dituztela ziurtatu dute. Horren ondorioz "eraikina eta gure ondarea galtzeko arriskua" ikusten dela adierazi du zinegotziak.

Udalaren ustez, Aldundiak eman behar duen lehenengo eta ezinbesteko urratsa da Musika Etxearen egitura indartzea. Momentuz, Foru Aldundiko teknikariak udal teknikariekin jarri behar dira harremanetan egoera aztertzeke.

Ido beretik, EAJko taldeak Arabako Biltzar Nagusietako Javier de Andrési azalpenak emateko eskatu dio Lamuza Parkearen inguruan.

Bestalde, Laudioko hainbat herritarrek sinadura bilketa abiatu dute Change.org internet plataforman.

250 sinadura baino gehiago bildu dituzte eta helburua da Arabako Foru Aldundiak neurriak hartzeko eskatzea, parkeko eraikinak guztiz erori baino lehen.

Lamuza parkearen historia

Parkearen jatorriko etxea XVIII. mendean eraiki zen. Gaur egun, kultura etxea da hori. Horren inguruan egin ziren XIX. eta XX. mendean gainontzeko eraikinak.

Musika Etxea eta Kasinoa pasaden mendeko 20. hamarkadan zehar gauzatu ⁽⁴⁾ ziren eta berez konplexura gehitu ziren azkenengo elementuen artean daude.

Urquijo sendiaren ⁽⁵⁾ etxea izan zen urte luzez. Estanislao Urquijok gidatu zuen hasiera batean, Madrilen bankari moduan aberastu baitzen.

Arkitekto ospetsuek parte hartu zuten Urquijok agindutako lan ezberdinetan. Horien artean Francisco de Cubillas egon zen; Almudenako Katedrala, Deustuko Unibertsitatea eta Butroeko Gaztelua ere bereak dira.

Parkeari buruz Egoitz Merinok informazio asko du. Nahiz eta historialaria ez izan, artea eta kultura oso gustuko ditu.

Egun Musika Etxea bezala ezagutzen dena Antzerkia izan zela dio: "Musika Etxeak jarduera kultural oso garrantzitsua izan zuen: errusiar balletak edo senideek egindako antzezlanak ez ezik udan Europako moda berriak ekartzen zituzten."

Adierazi duenez, kasinon ere ekitaldi ugari antolatzen zituen Urquijo familiak, udan bereziki. Jaiak

edo senideen urtebetetzeak ospatzen ziren bertan. "Jai horiek ezagarririk berezia zuten, gaikako jaiak ziren. Batzuetan jai txinatarrak ziren, beste batzuetan euskaldunak..." argitu du Merinok.

Etxe guztiak gaiaren arabera dekoratzen ziren.

Hala ere, herri xumea ez zuten gonbidatzen jai horietara; Alfonso XIII.a erregea eta Victoria Eugenia erregina, politikariak, Donostian eta Kantabrian uda ematen zuten aristokratak, artistak eta antzezle famatuak... baizik. Zinemaren lehen urratsak eman zituzten estatubatuarrek ere bertatik pasa ziren, haren esanetan.

Guda zibilean indar errepublikanoek okupatu zituzten eraikinak -150 ohe baino gehiago zituen- eta berez oraindik ikus daitezke hauek egindako bombardaketen aurkako gortorlekuak.

Ondare botanikoa ere kolokan

Lamuzako parkeak duen beste ondasuna zuhaitzak dira. Urquijo sendiak lorategi botaniko oso garrantzitsua osatu zuen eta mende bat baino gehiago dituzten zuhaitzak topa daitezke bertan. Sarrean dagoen magnolia, adibidez. Laudioko herritar batzuek uste dute ondasun hori ere arriskuan dagoela eta horren adibide gisa aipatu dute duela urte batzuk zedro bat erori egin zela.

Hiztegia: ekiditeko ⁽¹⁾, saihesteko / aburuz ⁽²⁾, ustez / arrakala ⁽³⁾, pitzadura / gauzatu ⁽⁴⁾, burutu / sendiaren ⁽⁵⁾, familiarren.

Harrera positiboa izan du URAK ibaia bideratzeko egin duen planak

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Aurten ekingo dio Uraren Euskal Agentziak Laudio Nerbioi ibaia bideratzeko proiektu tekniko definitzeari. Izan ere, uholdeak saihesteko obrak egin behar dituzte ubideetan.

Agentziaren arabera, "segurtasun hidraulikoa" bermatzea da proiektu horren helburua, herriari "aldiro eragiten dioten ur goraldiei aurre egiteko". Zuzendaria den Iñigo Ansolak adierazi du "teknikarik samurrenak" eta "etxebizitza gutxienei eragingo dieten irtenbideak" bilatuko direla, "ahal den neurrian".

Horren inguruan mintzatzeke Laudioko udal-gobernu taldea URArekin batzartu da Gasteizen.

Aldi berean, Laudioko EAJk ziurtatu du haiek ere harremanetan egon direla agentziarekin eta oso pozik daudela bere erantzunarekin.

Auzokideen oharra

Berlojatzen elkartearen ustez herritarrek egindako mobilizazioen ondorioz jazo da URAren irizpide aldaketa. Hori dela eta proiektua 500 urtera begira egin ordez, 100 urtera egingo da. Zentzu horretan, auzokideak zoriondu dituzte.

Gainera, Aretako eraikin arrosaren itxura hobetzeko egin duten lan isila gorai patu dute Berlojatzeneko kideek. Udalarekin elkarlanean aritu baitira etxearen inguruak konpontzeko.

Eraikin abotabehar zutelairagarri zutenean etxearen ospea kalte zuen haien aburuz eta azkenengo konponketei esker fama txar hori zuzendu dute neurri batean.

Orain, Berlojatzen elkarte kideek espero dute proiektu berria ahalik eta lasterren idaztea ordezkari guztien elkarlanarekin; hurrengo udal hauteskundeak baino lehen. Ez bakarrik herritarren zalantzeekin bukatzeko baizik eta alderdiek beraien mesedetarako erabili ez dezaten "auzokideen lorpena izan dena".

Berlojatzen plataforma 2010ean sortu zuten, Aretako etxe arrosako eta Karmen zein Fleming Doktoorea kaleetako bizilagunek uholdeak saihesteko planaren baitan hainbat etxebizitza botatzeko planaren aurrean kezkatuta zeudelako.

Elkartek udal lokalak izateko araudia prestatzen ari da udala

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Herriko kolektibo eta elkarteek darabiltzaten lokal publikoen kudeaketa arautuko duen ordenantza eratzea proposatuko du Bilduk Okondoko Udalean. Udalbatza osatzen duten alderdien proposamenak eta herriko kolektibo eta elkarten parte-hartzea uztartuko dituen prozesua iragarri du Sergio Tato alkateak honen harira.

Udal gobernuburuak azaldukoaren arabera, herrian dauden behar ezberdinen zehaztapena izango da hausnarketaren abiapuntua. Batetik, Okondoko kolektibo ezberdinek -gazteek, emakumeek edo pertsona nagusiek egunerokoan non elkartu bermatua izan dezaten. Eta bestetik, herriko hainbat elkarte -mendizaleek, dantza taldeak edo bolariak kasu- beraien aldiroko bilera eta jardueretarako egoitza izan dezaten. "Badira lokala eskatzen ari diren elkarteak, eta espazioak antolatu behar ditugu", adierazi du alkateak. Sergio Tatoren aburuz, lokal publikoen erabilpenerako ordenantzak, berton bidera daitezkeen erabilpen partekatuen azterketa, eta egoitza bakoitzaren erabilpenerako araudiak ere, izan beharke ditu kontutan. "Bi-hiru elkarten artean konpartitu beharreko lokalak egongo dira", aurreratu du.

Ekarpen bilketa

Lehen urratsa udalbatzako gainerako alderdiei proposamena aurkeztea izango da. Gaia lantzeko batzordea deituko du alkateak horretarako, "beste alderdiei aurkeztu behar diegun ideia bat da".

Bigarren fasea, berriz, herritarren artean zabalduko dute: "Kolektibo eta elkarte guztiengana joko dugu beraien ekarpenak eskuratzeko". Foro bietan bildutako ekarpen kopuruak ezarriko du zabalduko den parte-hartze prozeduraren iraupena. Data zehatzik iragarri ez badute ere, datorren hilabetean Udalbatzak lokalen banaketarako akordio proposamena izan lezake mahai gainean.

info+: audioa Sergio Tator egindako elkarriketa Aiaraldea Irratian



_herriz herri

Amurrio

Artziniega



Urtero bezala txerria eta beste hamaika produktorekin enkantea egingo dute. Argazkia: San Anton de Armuru elkarte

100 saltoki izango ditu aurtengo San Anton Armuru azokak

ERREDAKZIOA | Lucia Menoyo Martin

Goizeko 9:00etan kanpai errepikak eta suziriek festa iragarriko dute Armuruko San Anton baselizarenguruetan. 10:00etarako baserritar eta artisau produktu azoka irekita egongo da. Azoka zabala eta askotarikoa izango da; ehun postu inguru jarriko dira aurtan. Txosna ere zabalduko da salda eta txakolina dastatzeko. Urtero bezala, San Antonen Lagunak elkarteak antolatuta du jai. Amurrioko udalaren babesarekin. Antolatzaileek baserritarrez jantzita joateko deia luzatu diete hurbilduko diren guztiei eta batez ere txikienei, giroa politagoa izan dadin.

Enkantea

11:30ean meza ospatuko da San Anton Baselizan, azokari izena ematen dion santuaren omenez. Jarraian, 12:30ean, txerriki eta ba-

serriko produktu sorten enkantea hasiko da baselizararen aurrean dagoen plazan.

Elkarteko kide diren Lander Meazak eta Imanol Arberasek gidatuko dute enkantea agertokitik Produktu sorta dotore-dotoreak banatuko dira, txerriki eratorriko jakiak, txakolina, likore eta bestelakoez osatutakoak. Aurtan baserritar produktuez soilik osatuta egongo dira, kirol arropa edo bestelako osagarriak barne hartu gabe, produktu gutxiago izango dituzte horrela eta sortak eskuratzeko tikitak merkeagoak izango dira. Aurreko urteetan egin duen moduan, enkantean lortutako dirua ongintzara bideratuko du San Antonen Lagunak elkarteak.

Enkantea egiten den bitartean, hamabost txerriki eta arkume inguru erreko dira, alde zurretik erre-

serbatu dituztenentzat.

Baranbion ere, festa

Baranbion eta Okondon ere San Anton eguna ospatzeko ohitura dute. Ekitaldi gehienak larunbatean izango dira. Adierazi dutenez, aurtan ere igel txapelketa egingo dute. Ekintza guztiak San Antongo baselizan egingo dira.

20:30ean herri afaria egingo dute. Txartelek 12 euro balio dute eta Hordago eta Okeluri jatetxeetan daude eskura. Afalostean, pospoloaren enkanteari ekingo diote, eta amaitzeko erromeria izango dute.

info+: irudi bilduma lazko San Anton azokako argazkien galeria



Transmisioa ardatz jardunaldiak antolatu ditu Aresketa ikastolak

ERREDAKZIOA | Irati Maraño

Urtero bezala hezkuntzari buruz hausnartzeko deia luzatu du Amurrioko Aresketa ikastolak. Horretarako, hezkuntzaren inguruko jardunaldiak prestatu ditu. Ekitaldiak astelehenean hasi ziren, eta urtarrilaren 17 arte iraungo dute. Aurtengoa, hamalaurerren edizioa izango da.

Oraingoan, "Transmisioa" izango da jardunaldien leloa, eta gai hori ardatz hartuta hainbat arlotako adituen hitzaldiak egongo dira.

Hitzaldi guztiak Katekesi aretoan izango dira, 19:00etan, eta jende guztiari irekiak. Gaur, esaterako, Marian Becerrok "Heredatutako emozioak" izango ditu hizpide. Becerro mediku psikoterapeuta da. Bihar, aldiz, Jose Luis Rebordinosek "Etorkizunez kargatutako arma dugu zinema" hitzaldia emango du.

Laudioi jardunaldiak

Laudio ikastolaren txanda izango da datorren astean astelehenean ostegunera, urtarrilaren 20tik 23ra, alegia.

Hitzaldiak Herriko Plazako udal gela balioanitzean egingo dituzte arratsaldeko 17:30ean. Saio bi euskaraz eskainiko dira: Pikler ikuspegiaren oinarriak, astelehenean, Txusma Akonaren eskutik eta ostegunean, umeen aurrean helduei emozioak bideratzen laguntzeko saioa, Nerea Mendizabalek eskainia. Asteartean gazteen aisialdia landuko du Idurre Lazkanok gaztelaniaz eta, asteazkenean, ele bietan, nor bere bide profesionala prestatzen protagonista izatearen beharra landuko du Leire Uriartek.

Gueñeseko igerilekua erabili dadin akordioa sinatu du udalak

ERREDAKZIOA | Uxue Tome

Urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean Artziniega eta Gueñeseko udalek adostutako hitzarmena. Helburua, Artziniegakoek Sodupeko kiroldegiko udal igerileku estalia erabiltzea da. Hala, Artziniegako bizilagunek urteko eta hiru hileko KGT txartela erabiltzeko aukera izango dute. Akordioaren arabera, Artziniegako udalak erabiltzaile bakoitzaren txartelaren %25aren diferentzia ordainduko du. Zehazki, 18 urte artekoek urteko erabilergatik 84 euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek 99,7 euro. Hiru hileroko erabilera 31,5 eta 36,8 euroren truke egin ahalko dute, hurrenez hurren.

Auzoetan inbertsioak

Azaroaren lehenengo astean Artziniegako udala Tuterako Erretes, Santa Koloma, Soxoguti, Mendietza, Barrataguren, Ureta, Gordeliza, San Antonio, La Venta eta Kanpijoko auzokideekin bildu zen, haien behar garrantzitsuenak ezagutzeko eta auzoetan egingo diren obren lehentasunak finkatzeko. Jasotako proposamenak baloratu ondoren lehenengo obrak egin dituzte; Artumiana eta Soxogutiko sarbidean asfaltatzea, besteak beste. Horretarako, 2013ko aurrekontuetan gordetako 20.000 euro erabili dira. 2014an ere aldaketak egingo dituzte beste auzo batzuetan. Horien artean daude La Venta eta San Antonioko hornikuntzaren hobetzea Gordelizeko deposituaren bitartez. Edo, auzo ezberdinetan hirigintzako ekipamendua aldatzea. Auzokideekin hurrengo bilera ekaina aldera egingo dute.

EBE Argindarra

Zerbitzua Euskaraz

- Argiketariak Aiara osorako.
- Argi instalakuntzak eta mantenimendua (etxebizitza, pabilioietan, industrigintzan eta herriko argietan)
- Argiketari Tituludunak eta Homologatuak

Ebe Argindarra | ebeargindarra@gmail.com | 679.070.116

Ondasunegi

KOMUNITATEETAKO ERABERRITZE LANETAN ADITUAK

ESPEZIALISTAK GARELAKO DUGU PREZIORIK ONENA EGIAZTATU EZAZU

94 672 08 32 | Karmen 25, 01400 LAUDIO/Araba | info@ondasunegi.com

KONTRATATU PUBLIZITATEA

AIARALDEA EGUNKARIAN EDO WEB-GUNEAN

Kontsultatu tarifak eta eskatu aurrekontua

Tlfnoa. 669 83 57 87

publizitatea@aiaraldea.com

_herriz herri

Orozko



Ohiturei eutsiz trikitia meza eta zozketa egongo dira Argazkia: Aiaraldea.com

Tradizioei jarraiki egingo dute San Sebastia eguna

ERREDAKZIOA |  | Lukas Pasandin

San Sebastia eguna urtarrilaren 20an bada ere Orozkon aurreko igandean ospatzen dute. Beraz, aurten 19an izango da. Eguraldi txarra balego alboko etxeko aterpean egingo dute festa. 20 urtetan programa bera mantendu dute: 12:30ean meza eta ondoren trikitilariak eta txosna. Bertan, txorizo eta gazta eskaini eta zozketa egiten dute. Datorren urtean elizako teilatua berriztatzeke asmoa dute. Auzokoen artean auzolanean egingo dute, horregatik, aurten bildutako dirua elizako teilak eta oholak erosteko erabili nahi dute.

Aspalditik datorren ohitura da Orozkoko San Sebastia auzoko ospakizuna, Gari Garaigorta antolatzalearen esanetan. Antzina ardoa, galletak eta hainbat janari eramaten zituen herriko jendeak; eta hor amaitzen zen jaia. Denborarenkin Orozkoko udalari laguntza es-

katu eta trikitia, herri kirolak, herri bazkaria... gehitu zizkioten. Azaldu duenez, goi momentuak izan ditu auzoak. Horren adierazle izan da urte batean gotzaina ere igo izana. "Ehun pertsona baino gehiago biltzen ziren, indabak jaten zituzten, baita sokamuturra egin ere". 1975 aurretik, jaia galdua zegoela dio. Orain, herritik eta kanpotik joaten da jendea: "Bilbotik ere etortzen dira. 80 pertsona inguru biltzen gara". San Sebastira joateko kotxez joan behar da. Albitzutik 200 metrora dago. Eliza parean, aparkatu eta oinez soloetatik igotzen da jendea. Hala ere, galbiderik ez izateko kartelak edo seinaleak jarriko dituzte.

info+ audioa
Gari Garaigorta egindako elkarrizketa



Luiaondo



Anbulatorio bilakatu nahi duten Patxita etxea Argazkia: Aiaraldea.com

Datorren urterako bukatuta egongo da anbulatorioa

ERREDAKZIOA |  | Aitor Martinez Ibarrola

Luiaondok anbulatorio berria izango du 2015erako, Patxita Etxea izenarekin.

Gaur egungoa zaharkituta dagoela iritzita, gobernu taldeak bere legealdiaren helburuetan berria eraikitzea zehaztu zuen. Hala, foru planak bi urtetan bukatuta egotea behartzen du. Proiektua gauzatu ahalizateko 90.000 euro inguruko diru-laguntza jasoko dute.

Egun, Luiaondoko anbulatorioa gizarite etxearen parean dago. Aiarako herritar gehienak Arespalditzako anbulatorioa joaten dira, modernoagoa baita eta beharrei erantzuteko prestatuagoa. Hala ere, zenbait herritarrek ere Luiaondon jasotzen dute zerbitzua.

Luiaondoko udalaren helburua anbulatorioa ondo prestatzea da, bide batez, Aiaran bizi diren 1.000 pertsona inguruk Arespalditzara joan behar izan ez dezaten. Gainera,

egungo eraikinaren baldintzak direla eta, Osakidetza ez du bere funtzionamenduaren kargu egin nahi.

Aurrekariak

Lehen ideia Arespalditzako zentroaren proiektua Luiaondora eramatea izan zen. Zentro hori egurrezko bungalow baten antzekoa da eta menpekotasunik ez duten agureak jasotzen ditu: eguna han pasatzen dute eta bertan eskaintzen zaie beharrezkoa den arreta.

Proiektu berria

Anbulatorio berria aurreko udal gobernuak erosi zuen eraikin berdinean kokatuko da. Hartziko etxe bat da, 3 solairu dituena.

Josu Artetxe alkatearen hitzetan, birgaitze lanak beharko ditu. Lehenengo solairuan anbulatorioa kokatuko da eta gainontzeko biak libre geratuko dira. Udalak duen di-

ruaren arabera, liburutegia edota kultur etxea jartzeko aukerak analizatuko dituzte.

Aurreproiektua aurreko legealdian ordaindu zen. Proiektua pertsona berdinak garatu du. Eraiki ahal izateko tramite guztiak egin da daude: foru planeko aurkezpena eta onarpena, diru-laguntzaren onarpena... Orain nork garatuko duen eta nork eraiki aukeratu beharko dute. Horretarako, proiektu lehiaketara aterako da, arkitekto talde bati egokitu ahal izateko. Prozesu honek bi-hiru hilabete iraungo ditu. Bigarren pauso batean zein enpresak eraikiko duen erabakiko da.

info+ audioa
Josu Artetxe Aiarako alkateari egindako elkarrizketa



Lizentziak
Ibilgailuak
Ziurtagiriak
Dirulaguntzak
Garraioak

Ehiza - Arrantza - Armak
Matrikulazioak - Transferentziak - Bajak
Jaiotzeagatikoak - Azken nahia
Autoenplegua - Lan-agiriak
Txartelak - Bisatuak

ARRATE

GESTORIA

Aseguruak - Aurrezki-planak - Finantza-produktuak
Aholkularitza laborala, fiskala eta kontablea

Iturralde 2, 01470 AMURRIO
945 89 02 06

ZERBITZUA EUSKARAZ

XARMANT Txakolina
Ardo desberdin batez gozatu

ARABAKO TXAKOLINA
TXAKOLI DE ALAVA
DENBORAREN OROITIA

Xarmant
Txakoli

AMURRIO (ARABA) TELFONO: 945 89 12 11
WWW.XARMANT.ORG

sozioekonomia



Juan Luis
España
CCOO sindikatua

Argia

Enpleguak du
lehentasun osoa

Gure eskualdeko langabezia tasa Arabakoaren eta EAEkoaren gainetik dago.

Ekiteko garaia da. Erakundeek izan behar dute, gizarte eragileekin batera, talde ahalegin hau zuzendu behar dutenak.

CCOO sindikatuaren ustetan dagoen ehun industrial mantendu behar da, enpresen krediturako sarbidea bermatuz.

Lehen sektoreari eta zerbitzuei balioa eman behar zaie, baina industria da Aiarako benetako eragilea.

Enpresen ezarpena sustatu behar da, Audio eta Amurrioko garraioetarako eta Lanbide Heziketarako sarbide egokiak.

Prestakuntza enpresen gaur egungo eta etorkizuneko beharretara egokitu behar da. Gainera, beharrezkoa da Eskualdeko Ospitalea, ikastetxeak eta narriatuta dauden auzoak eraberritzea, babes ofizialeko etxebizitzak eta abar. Betiere azpikontratazioaren kontrolarekin.

Funtsezkoa da 50 urtetik gorakoentzat, gazteentzat, emakumeentzat, epe luzeko langabeentzat eta okerren daudenentzat etorkizuneko perspektiba duten eta egonkorak diren gizarte eragileekin adostutako Enplegu Planak garatzea. Eusko Jaurlaritzak finantzatuta eta udalek kudeatuta.

CCOO Euskadirentzat enplegu politikek beraiek bakarrik ez dute enplegurik sortzen baina oinarritzat dira. Hersturarekin bukatu behar dugu, diru-sarrerak handitu (erreforma fiskal egokia) enpleguaren sorruntzan inbertitzeko.

Eskualdeko lau enpresatako lan gatazkekin hasi da urtea



Kider enpresako langileen manifestazioetako bat Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Edorta Moreno Martin

Urteberriabukatu berri den bezain gatazkatsu dator lan arloari dagokionez. Lau dira, une honetan, zailtasun berriak pairatzen dituzten Aiaraldeko lantegi eta enpresak eta haien langileak: Guardian, Aplica, Artiach eta Kider.

Hasteko, Carglass multinazionalak Guardianen zati bat erosi du eta 37 langile geratu dira haren menpe, administratiboak eta call

-centerrekoak, hain zuzen. Azaldu dutenez, oporrak har zitzaten eskatu zieten langileei zuzendaritzaren aldetik eta ondoren kaleratuak izango zirela jakinarazi zitzaizen kaleratze-espeditaren plazaratzearekin batera.

Aplica

Aretan kokatua dagoen Aplicari dagokionez, bertoko langileek

greba egin zuten pasa den astean. Langile horien egoera nahiko gaiztotua dago 2012ko ekainetik. Izan ere, lan erregulazio espediten baten ondorioz 17 pertsona izan ziren kaleratuak.

Geroztik, abenduaren 31n bukatzen Arabako Metalaren lan hitzarmenaren pean egon dira bertoko langileak.

Hitzarmen hori hilabetez luzatzea lortu badute ere, otsailetik aurrera enpresak baldintza berriak eskatu ditu: gehiago lan egitea eta gutxiago kobratzea.

Langileek, egoera horren aurrean, lanuztea egitea erabaki zuten.

Artiach

Artiach enpresaren kasua gori-gorian dago. Ekainean Nutrexpak -Cola Cao, Cuetara edota Nocilla bezalako enpresen kudeatzailea- Galletas Artiach enpresa erosi zuen.

Abenduaren 11n lan hitzarmen berria negoziatzeko mahaia martxan jarri zen, enpresa horrek ere lan-baldintzentxarragotze bat eskatu zuelarik.

Langileek 2011ko lan hitzarmena

mantentzea eskatzen duten artean enpresak ezezkotzat uzten die.

Egoera salatzeko UGTk, ESK-k, ELAk eta LABek osaturiko enpresa komiteak kontzentrazioa deitu zuten Orozkon kokaturiko lantegiaren aurrean iragan astean. Prentsa-ohar baten bitartez enpresa komiteak lan hitzarmen duina lortu arte atsedenik hartuko ez dela jakinarazi du.

Kider

Atzo enpresako zuzendaritzarekin bilera izan zuten. Enplegu Erregulazio Espedientea urtarrilaren 30era arte dute. Langileek adierazi dutenez, mobilizazioei ekingo diete. Bihar 10:00etan Arakaldotik Bilbora martxa egingo dute. Bertan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan prentsaurrea eta kontzentrazioa egingo dute. Urtarrilaren 21ean, aldiz, La Caixak Bilbon duen egoitzaren aurrean kontzentrazioa egingo dute.

info• bideoa

Orozkoako Artiach enpresako mobilizazioa



2007tik 2013ra %146,65 igo da langabezia eskualdean

ERREDAKZIOA | Juanjo Basterra

2013. urte amaieran, 2012a amaitzean baino langabezia handiagoa egon da. Datu ofizialen arabera, 3.352 langabe daude. Hau da, biztanleria aktiboaren % 17,2.

Krisi ekonomikoa 2007an hasi zen, eta orduz geroztik langabezia izugarri egin du gora Aiaraldean; zehazki, % 146,65 hazi da.

Bestalde, krisia dela-eta, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden kopurua % 13,28 murriztu da: 2.225 lagun gutxiagok eman dute izena. Zehazki, 16.743 afiliatu izatetik, 14.518 izatera igaro da; kontuan hartuta, betiere, helarazi dituzten azken datuak 2013ko azarokoak direla.

Galerarako joera horretan, bada, erdia baino gehiago Audiokoak izan dira (1.172 afiliatu gutxiago), eta Amurrioren, berriz, 463 afiliatu gutxiago egon dira. Hain zuzen, Aiaraldea da langabezia handiena duten Hego Euskal Herriko eskualdeetako bat.

Hego Euskal Herriko langabezia-tasa % 17,1ekoa da. Horrek esan

nahi du Europar Batasuneko batez bestekotik 6,2 puntu gorago dagoela. Izan ere, Kroaziak, Espainiako Estatuak eta Greziak soilik dute langabezia handiagoa. Guztira, 218.862 langabe daude, hau da, urtebete lehenago baino 2.165 gutxiago. Ezkerraldeak, Sakanak eta Enkarterriek Aiaraldea baino langabezia handiagoa dute.

Aiaraldeko udalerrien artean desberdintasun nabarmenak daude langabeziari dagokionez: Aiara (% 11), Amurri (% 17), Artziniega (% 12,3), Audio (% 19,5), Okondo (% 11,1), Arakaldo (% 9,1), Arrankudiaga (% 10,6), Orozko (% 7,7) eta Urduña (% 16,6).

Laudion, alarma gorria

Beste udalerrietan ez bezala, udalerririk handienetan —Laudion eta Amurrioren— langabezia hazi egin da 2013an zehar. Hala, bada, Amurrioko langabezia-tasa Aiaraldeko tasa orokorraren parekoa da (% 17), eta Audio, berriz, alarma gorria piztu duten herrien artean

dago jada. Izan ere, Laudion Barakaldon bezainbeste langabezia dago ia (% 19,7).

Aiaraldeko herri handienetan langabeziak izan duen bilakaera aztertuta, zera ikusten da: 2007az geroztik —eztanda egitear zegoen krisi ekonomikoren alarmak piztu zirenetik, bada— igoera izugarria izan dela.

Amurrioko langabezia-tasa % 7,3koa zen 2007an, eta 2013ko amaieran, aldiz, % 17koa. Audioko igoera ere deigarria da: % 8,6tik % 19,5era.

Emakumeak, kaltetuen

Bestalde, Aiaraldea jasaten ari den krisi ekonomikoren baitan, emakumea da kaltetuena. Gizonen langabezia-tasa baino 6-7 puntu gorago dago emakumeen langabezia. Halaber, gizonen soldatekin alderatuta, emakumeenak % 30 txikiagoak dira eta, esan bezala, eurak dira langabeziaren eta lan-prekarietatearen biktima nagusiak.

Horren harira, Audio da emaku-

mezkoen langabezia altuena duen udalerrria: zehazki, % 23,2koa da.

Horrek esan nahi du Audioko lau emakume aktibotatik bat langabea dela. Amurrioren, langabezia-tasa, emakumeen artean, % 20,5ekoa da. Ondoren, Okondo eta Aiara datoz. Udalerririk horietan bietan % 14,2koa da tasa.

2013ko abendu amaierako datuak ez badago ere, azarora bitartean, 13.206 lan-kontratu sinatu ziren Aiaraldean. Hau da, 2012an sinatutako 15.720 kontratuetatik behera.

Amurrioko jaitsiera ikusgarria izan da: 2012an 6.457 kontratu ziren, eta 2013ko azarora arte, aldiz, 3.941.

Laudion, aitzitik, joera alderantzizkoa izan da: 2012an 4.647 kontratu sinatu baitziren, eta 2013an, azarora arte, 4.999. Okerrera da, dena den, kontratu horietatik % 7 aldi baterako izan direla. Langileak, batez beste, 41 egunerako kontratatzen dira, hilabete erdirako, beraz.

_jendartea

Aketza Merino

"Erailketak, bortxaketak, lapurreetak... Aiaraldea osoko berriak jaso ditut"

AKETZA MERINOK XVII-XIX. mendeetan eskualdean izandako lapurretak, bortxaketak eta liskarrak ikertu ditu. Lezamatik abiatuta, garai hartako gertakarien "kronika beltza" egin du.



Aketza Merino Saraubeko mahaian Argazkia: Gartzen Garaio

ERREDAKZIOA | Irati Marañon

Aketza Merino (Amurrio, 1987) historialaria da. Aiaraldean XVII. eta XIX. mendeetan zehar gertatu ziren bortizkeria kasuak aztertu ditu.

Aiaraldeko "kronika beltza" egin duzu. Labur azaltzerik bai?

Iraganeko gizartean ere indarkeria eta lapurreta kasuak zeuden, ez da gaur eguneko kontua. Horiek ikertu ditut.

Kasuak lau taldetan banatu ditut: erailketak bortxaketak, bandlerismoa... Ikerketa eremua Lezama, Baranbio, Larrinbe... izan da. Lezamako udala izan zena. Normalean ez dakizu zerekin egingo duzun topo eta Aiaralde osoko berriak jaso ditut.

Aiaraldeko kasu dezente topatu dituzu. Adibidez?

Lexartzun bada kasu bat. Nik ez dut irakurri baina auzi papera aurkitu dut. XVI. mendekoa da, gizon batek bere senide bat bortxatu zuela esaten du.

Lendoñobeitin, baserri batean, atek lapurtu zituzten. Erasoek zigorra izaten zuten, baina batzuetan ez dira agertzen. "Los Granizos" lapur taldearen kasuan, informeak Bizkaiko Foru Artxiboan daude. XIX.mendean Altube eta

Baranbio aldeko lapur taldea zen. Kideak hemengoak ziren, abeltzainak eta ikazkinak.

Zergatik gertatzen ziren hainbeste lapurreta edo liskar?

Beharrak bultzatuta. Hala ere, ezin da orokortu. Normalean, ez daukazun zerbait lortzeko. Orain gertatzen zena lehen ere pasatzen zen. Garai zailak ziren, jendea pobrea zen eta batzuk bideetan lapurretak egitera dedikatu ziren. Etxe batzuk ere asaltatu zituzten. Kasu honetan harrapatu zituztela badakigu, horietako bi kartzelan hil zituztelarik.

Lapurtzeko leku aproposenak mendiak eta inor bizi ez ziren lekuak ziren: Urduñako mendatea, Altube, Gorobel... Oso bide garrantzitsuak igarotzen ziren hementik, batez ere, Pancorbotik (Burgos) Bilbora zihoana. Bideetatik merkantzia asko pasatzen zen, eta oso leku aproposak ziren lapurtzeko.

Nora jo duzu artikulua idazteko materiala eskuratzeko?

Dokumentuak mota askotakoak dira. Batzuetan auzitegi bateko epaiketa instrukzioa da, beste batzuetan kronika bat, pertsonen abokatuei esleitutako pape-

"Urrezko edo zilarrezko gauzak, mendian libre zeuden animaliak... Jateko edo saltzeko gauza baliagarriak lapurtzen ziren"

"XVI.mendean Lexartzun gizon batek senide bat bortxatu zuen. Lendoñobeitin, baserri batean atek lapurtu zituzten"

rak... Material gehiena Bizkaiko Artxibo Foralean eta Arabako Artxibo Historikoan hartu dut. Denak gazteleraz zeuden.

Bitxikeriak topatuko zenituen, ez?

Bai. Nola bizi ziren, uholdeek izandako eragina, euskarari buruzko notiziaren bat tarteka... Izan ere, uholde batzuk egon ziren XVII. mendean.

Aiaraldeko gizartean bortizkeriak presentzia handia izan du beste eskualde batzuekin alderatuta?

Normalean hirietan indarkeria kasu gehiago egoten zen, baina landan ere bai. Lapurretak nola egiten ziren normalean ez da gehiegi zehazten. Zer eraman zuten bai, baina datu gehiagorik gabe. Elizetan, esaterako, kopak eta urrezko edo zilarrezko gauzak merkatuetan saltzeko, dirua, mendian libre zeuden animaliak... Jateko edo saltzeko gauza baliagarriak.

Industrializazioak liskar berriak sorrarazi al zituen?

Hemen ez dakit. Tesia bukatzen dudanean esango dizuet. Bilbon eta Ezkerraldean bai. Jende pila Joan zen leku berberera denbora gutxian eta gehienak beharrak bultzatuta. Alkohola medio nik uzte dut indarkeria gehiago egon zela garai hartan. Aiaraldean industrializazioa gizarte aldetik beste toki batzuetan baino lasaiagoa izan zen.

Tamalez emakumeen aurkako indarkeria kasurik ere egongo zen, ez?

Bai. Lezamako errota batean ustez gizonak emakume bat bortxatu zuen. Dokumentuetan gizonak emakumeak harekin ezkondu nahi zuelako gertatu zela zioen. Emakumeak, aldiz, bortxatu egin zuela. Izorian ere bada beste bat: emakume batek senarrak tratu txarra ematen ziolako etxetik alde egin zuen. Autoritateek etxera itzultzera behartu zuten baina dirudienez ez zen bueltatu. Amurrioren geratu zen. Kasuak arruntak ziren, baina ez zen salatzen.

Aurrera begira, baduzu beste ikergairik buruan?

Industrializazio eta modernitate prozesuak Aiaraldean izandako eragina ikertzen nago, 1860tik 1975era.



Maider Iglesias ARANZADI

_Argia

Mehatxatutako espezieak

Animalia, landare eta onddo espezie asko mehatxupear daude. Gaur egun argi dago habitat galera dela dibertsitatea galtzearen arrazoirik nabariena.

Hala ere, geroz eta garrantzitsuagoak dira beste arazo batzuk ere, batik bat espezie exotiko inbaditzaileen agerpena.

Egoera honek legedi desberdinen sorrera bultzatu du, Euskal Herriko tresna nagusia Espezie Mehatxatuen Katalogoa delarik.

Ornodunena da legedi horietan hobekien ordezkaturiko taldea, ziur aski animalia erakar-garri eta ezagunenak direlako. Hauen artean, gainera, ugaztunak dira jendeak gehien maitatuenak. Gaur egun nork ez du bisoi europarra (Mustela lutreola) ezagutzen, galzorian da goen mustelidoo?

Ostera, ornogabeen taldea askoz dibertsoagoa da, baina baita ezezagunagoa ere. Mollusku espezie asko dira adibidez galzorian, eta hala ere, oharkabeen pasatzen dira. Zertarako babestu ba bare "ezerez" bat?

Aiaraldean mehatxatuta dauden ornogabe espezie batzuk topa daitezke, adibidez, udaberrian Delikan ikus daitezkeen sorgin-orratz beltz-horri marraduna, *Onychogomphus uncutus*. Ibaitek gertu hegan eta ertzetako harrietan pasatzen den mariorraz hau estatuko zerrenda gorrian zaugarri moduan agertzen da. Erronkarik nagusia gainerako jende zein administrazioarentzat ere oharkabeen pasatzen diren bizidunak behatzen eta maitatzen ikastea da.

Gosea itzaliz eta itxaropena piztuz

Mendebaldeko Sahararako janari bilketa abiatu du Aiaraldeko RASD elkarteak. "Piztu itxaropena" kanpainaren baitan ahalik eta elikagai gehien biltzen saiatuko dira otsaila bitarte. EAE bildutako tona guztiak eskualdetik aterako dira otsailaren 15ean.



Oporrak Bakean programaren baitan uda Euskal Herrian pasatzen duten haur saharaiarrei egindako ongietorri festa Laudion Argazkia: Goiatz Urkijo

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Mendebaldeko Saharara laguntzeko janari bilketa abian da. Salus Sanjose RASDeko kideak adierazi duenez, datozen bi asteburuetan eskualdeko supermerkatuetan egongo dira. Etzi Amurrion eta hurrengoan Laudion. Otsaila bitarte, nola ikastetxeetan hala supermerkatuetan saharaiarrek laguntzeko saskiak jarriko dituzte.

Sanjoseraren arabera, elkartasuna adierazteko ekintza ezberdinak egiten dituzte. Nagusienak, ordea, bi dira: neguko janari bilketa eta udako haur saharaiarren egonaldia.

Aurtengoa, janari bilketaren hamargarren edizioa izango da. "Herri ezberdinetan janari bildu eta otsailaren erdialdean kamioi karabanak bidaltzen ditugu", adierazi du Sanjosek. Kanpainak, "Piztu itxaropena" izena du eta EAE osoan egiten den ekimena da.

Urte berezia

Aurtengoa, baina, berezia izango da: "Aiaraldetik aterako dira Euskadi osoan bildutako janari tona guztiak. Data ez dago guztiz itxita baina otsailaren 15ean izango da".

Eskualdean, nagusiki Laudion eta Amurrion egingo dituzte bilketak.

Hala ere, Aiaraldeko ikastetxe ia guztietan gauzatuko da ekimena, RASD elkarteko kideak azaldu duenez. Elikagaiak beti berdinak dire-

Mendebaldeko Sahararako bidaltzeko elikagai bilketa egiten ari dira Euskal Herrian eta eskualdean. "Piztu itxaropena" kanpainaren baitan EAEn jasotzen diren tona guztiak aiaraldetik aterako dira Tinduffera.

la dio: "Beti eskatzen ditugu legun-break, azukrea, arroza, pasta, oliodun bonito latak eta konpresak". Aizine Hernandezek iazko elkarrizketa batean zehaztu zuenez, bidai luzea egin behar duten janariak dirrelakontuan hartutaz errenda osatuta dago: indabak, txitxirioak, dilistak, arroza, azukrea, atun eta sardina latak... "Emakumeentzat karroetan konpresak uzten ditugu, beharrezkoak direlako horiek ere".

Supermerkatuetan ere egongo da jana eramateko aukera. "Eroskin, Berriaken, Dian... komertzio gune handietan ere egongo gara", erantsi du Sanjosek.

Aurten, berrikuntza gisa supermerkatu txikiak ere lotu dituzte. Aiaran kasu: "Fisikoki gu ez gara egongo, baina txartel batzuk eta saskiak jarriko ditugu". Horretarako, bi asteko tartea utziko dute.

Salus Sanjoseraren esanetan laguntzea garrantzitsua da: "Elkartasuna adierazteko kausa asko daude. Guk ulertu eta babestu egiten dugu krisiarekin jendea laguntzeko elikagai bankua edo bestelako ekimenetan mugitzen den jendea. Hau horietako beste bat da. Saharar herria nazioarte mailan abandonatua dagoen herria da. Autodeterminazio eskubidea eskuratzeko erreferendumak ez dira gauzatu. Jendea kanpamentuetan oso egoera pre-

karioan bizi da". Krisia medio, laguntza gutxiago ari direla jasotzen dio; "bakoitzak ahal duen neurrian lagundu behar du".

Bidaia luzea

Supermerkatu edo ikastetxeetan jasotako elikagaiak Bilboko egoitzarabidaltzen dituzte. Bertatik ateratzen dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bildutako kaxa guztiak Sahararantz. Tartean, baina, Alkantene egiten dute geldialdia. Hortik Argelera joaten dira, Tinduffera heldzen diren arte. "Bidai luzea da baina hartzen den gutzia heltzen dela ziurtatzen da. Baita Saharako kanpamentuetara heldzen dela ere", zehaztu du Ainhize Hernandezek.

Kamioiak bertan uzten dituzte la dio Sanjosek: "Bigarren eskuok erosten ditugu, Saharara erabili ditzaten. Han ez dute industria-rik, ahal bezala konpontzen dira".

Urtero herrialde batetik ateratzen dira kamioiak. Aurten, Arabari egokitu zaiola eta Amurrion edo Laudiotik aterako dira; "Aiarako Kuadrillarekin negoziatzen ari gara".

Dena dela, maniobra egiteko espazio beharrik gabe litekeena da Laudiotik abiatzea; hala pentsatzen du behintzat Sanjosek. Alabaina, irteera data eta tokia aurrerago zehaztuko dute. Maiatzetik aurrera, berriz, "Oporrak Bakean" kanpainari

helduko diote. Zehatz-mehatz, udako oporretan haur saharaiarrek familietan hartzeko egitasmoa da.

Ana Martinez amurriarraren arabera, 2013an Aiaraldeko 13 familiak hartu zuten parte: "Oporrak Bakean programarekin herrialde saharaiarrek elkartasuna adierazteko dugu oinarri. Zehazki, Argeliako Tinduf erreferentziaren kanpamentuko haurrek uda hemengo familiekin igarotzeko programa da. Era honetan, batetik, udan han egiten duen beroari aurre egiten diote. Eta, bestetik, hilabete hauetan bizi baldintzak hobetzen dituzte. Bestalde, 35 urte hauetan Sahararak politikoki jasandako injustiziaren aurrean herri honen inplikazioa bilatzen da".

Programa 7 eta 12 urte bitarteko haur saharaiarrei zuzenduta dago. Uztailean Laudion egin zuten ongietorri jaietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 320 familiek hartu zuten parte.

Hiztegia: itzulitakoan ⁽¹⁾, bueltatutakoan / ardatz ⁽²⁾, oinarri.

info• bideoa:
Haur saharaiarrei egindako ongietorri festa Laudion



Aya Sidi Ethmane

"Hemen ez gaude guk nahi dugulako, han ezin delako bizi baizik. Kanpamentuetako baldintzak larriki txarrak dira"

AYA SIDI ETHMANEK Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuak gertutik ezagutzen ditu. Gurasoek Sahara askatzearen alde lan egiten dutenez ezin ditu laguntzak jaso. Laguntzak jasotzeko 5 urtez lanean kotizatzea eta 3urtez erroldatua egotea beharrezkoak direla-eta, laguntzak baino oztopo gehiago dituztela dio. Tindufen 200.000 pertsona bizi dira ur edangarria, eskola, nahikoa janari eta osasun arretarik gabe.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

AYA SIDI ETHMANE (1991, Sahara) Aretan bizi den saharauiarra da. 2003an etorri zen eskualdera, sende baten gaixotasuna medio.

Zein da saharauiarrek bizi duen errealitatea?

Sahara berez basamortua da. Mendebaldeko Sahara da gure lurraldearen izena, nahiz eta jende askok konfunditu. Hiru zati daude, Marokok okupatutako parte, liberatua eta errefuxiatuen kanpamentua. Azken hau Tindufekoa da, Argeliakoa.

Kanpamentuetako egoera zein da?

Baldintzak larriki txarrak dira, errefuxiatuen kanpamentuak dira. Jendeak ez du lanik eztabizirauteko baliabiderik ere (giza baliabideak, jatekoak, osasuna...).

Laguntza humanitariotik bizi dira, baina krisiarekin murriztu egin da.

Ura ez da edangarria, baldintza klimatikoak ez dira egokienak (bero uholdeak...), eskolako material didaktikorik ez dago, irakasleak formatu gabeak dira...

Garrantzitsuen elikadura da. Gutxi gorabehera 200.000 pertsona bizi gara.

Eta hemengoa?

Saharauiarrak beharregatik etortzen gara hona, egoerak behartuta.

Espainiak saldu egin gintuelako behartuta gaude Espainiara joaten. Hemengaudenak zortedunak gara.

Eusko Jaurlearitzak laguntzak ematen dizkigu ikasteko, osasuna bermatzeko... Eusko Jaurlearitzagatik ez balitz ez dakit zer egingo genukeen, Emandako baliabide eta laguntzengatik eskerrak eman behar dizkiogu.

Denek, baina, ez ditugu laguntza berak jasotzen. Gurasoak Sahararen askatasunaren alde lanean badaude hemenezin dugu laguntzarik jaso. Horretaz gain, laguntzak jasotzeko Espainian 5 urtez lan egin eta kotizatzea ezinbestekoa da; baita hiru urtez erroldatua egotea ere. Hiru urte horietan pisua, janaria... ordaindu behar dira. Dezente kostatzen zaigu, ez digute lanik eskaintzen eta aurkitzea ez da erraza.

Guk independizatu nahi dugu, horrela ez baitugu emigratu behar. Sahara oso aberatsa da, arran-

"Guk independizatu nahi dugu, ez emigratzeko. Sahara oso aberatsa da"

"Ez dago lehen adina laguntza, karabanak murriztu dira. Janaria urtean behin iristen da. Lehen urtean 3-4 aldiz"

"Jendeak ez dugula lan egin nahi dio. Gezurra da. Ni lan bila nago eta ez dut laguntzarik jasotzen"

tza... Marokok okupatua du. Espainiak ere, interes handia du independentzia ez emateko. Hala ere, laguntzak jende guztiari ematen dizkiotenak dira, "RGI" ez zaigu guri bakarrik ematen.

Duela hiru urte Europako Parlamentuak arrantza debekatu zuen. Itsasohori ez da Marokorena, askatasuna lortzeko borrokan eta surfritzen dagoen herri batena da. Espainiak akordio horren alde borrokatu zuen, legea deuseztatzeko; eta lortu dute.

Nola iritsi zinen zu Aiaraldera?

Ni hona ama gaizki zegoelako etorri nintzen, gaixo saharauiarrentzat Bilbon dagoen etxe batera ekarri zuten. Kanpamentuetan oso larri dagoen jendea hona etortzen da probak egitera, Saharako Lagunak elkartea eta Osakidetzaren arteko akordio baten bidez.

Laguntza ala oztopoa, zer izan duzu gehiago?

Zailtasunak laguntzak baino gehiago dira. Beste lurralde batera zatoz, integrazioa ez da batere erraza. Atzerritarrei eta saharauiarrei lana ez zaigu eskaintzen, latinoamerikarrek guk baino erraztasun gehiago dituzte. Ez dut ulertzen zergatik.

Jendeak gutaz gaizki hitz egiten du, ez dugula lan egin nahi diote. Hori gezurra da, ni lana bilatzen nago eta ez dut inolako laguntzarik jasotzen. Lana bilatzen dugu baina ez dugu topatzen. Lanaren barrera gauditzea oso zaila da.

Euskaldunak dioten bezain itxiak gara?

Pertsona bakoitza ezberdina da. Gure kasuan euskaldunek ondo hartu gintuzten, baina oso itxiak dira. Nik hemen eta herrialde katalanetan ikasi dut, eta han babes gehiago jaso nuen.

"Etawasol" saharauiarren elkar- te sortu duzue. Zertarako?

"Etawasol" izena jarri diogu. Hemen jarraitzen dugula esan nahi du, segi. Eskualdean 170 lagun inguru gaude. Pasa den astean arabierazko ikastaroa abiatu genuen. Gu oso komunitate sendoa gara. Elkar asko laguntzen dugu behar duena babestu eta esku bat botatzeko janari edo dena delakoarekin.



Aya Sidi Ethmane Argazkia: Aiaraldea.com

Facebook kontua eta webgunea ditugu edonork informazio gehiago nahi izanez gero.

Aurrera begira, baduzue beste ekintzarik buruan?

Bai. Otsailaren 27an Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa proklamatu zen eguna da. Ekintza asko egingo ditugu hurbilen dagoen larunbatean: jaima jarri, musika kontzertua, teabanatu, jenarekin gorputzak margotu Denok gonbidatzen zaituztegu parte hartzera.

Mendebaldeko Saharako janari bilketa abiatu dute. Elkartasuna krisian dago?

Bai. Lehen elkartasuna zuen jendea ez da hainbeste mantendu. Ez dago lehen adina laguntza,

karabanak murriztu egin dira. Janaria urtean behin iristen da, lehen urtean hirutan edo lautan zihozten.

Horregatik, asko eskertzen dugu baliabide gutxi dituen jendeak ere laguntzea; sardina eta bonito lata batekin ere lagun daiteke.

Jendeak laguntza eskatzen denean uste du guretzako dela, eta ekimen hauek kanpamentuan bizi direnak laguntzeko dira.

Jendarteari zer eskatuko zenioke?

Lan egiteko aukerak zabaltzea eta bereziki kanpamentuetan borrokan dagoen saharar herriarekiko elkartasun gehiago izatea.

Hemen ez gaude nahi dugulako han ezin delako bizi baizik. Integrazioa, harremantzea, lana... eskatzen dugu.

kirola

ESKUPILOTA: Dorronsoro-Iriarte amurriorek Goñi-Jaio izango dituzte aurkari

Amurrioko Aitzol Dorronsoro eta Koldo Iriarte pilotariek partida berezia antolatu dute otsailaren 7rako. Izan ere, Mikel Goñi eta Oier Jaio izango dituzte aurkari herriko frontoian egingo den partidari. Sarrerek 10 euro balioko dute; eta Txokogorri edo Fano tabernetan daude dagoeneko salgai.



ATLETISMOA: Euskara eta kirola lotuz Audio Herria krossa egingo da urtarrilaren 26an

EH Kirolak, Euskarri eta Basalarrinak Audio Herria krossa antolatu dute datorren igandarako. Irteera goizeko 11:30ean izango da. Ibilbideak 10 kilometro izango ditu. Urtarrilaren 24 arte www.ehkirola.org webgunean apuntatzen direnek 12 euro ordaindu beharko dituzte. Egunean bertan doazenek, 15 euro.

HOCKEYA: Bigarren doa Ganbegi Euskadiko Areto Hockey txapelketan

Larunbatean egindako Gizonezko Lehenengo Mailako Euskadiko Txapelketaren lehenengo itzulian, Ganbegik lehenengo bi partidak galdu zituen, Real Club Jolasetan eta Santo Tomás Lizeoaren aurka, 7-3 eta 4-3, hurrenez hurren. Azken partida, aldiz, 7-1 irabazi zuen Atlético San Sebastianen kontra. Larunbatean jokatuko da biga-



Iñaki
Isasi
TXIRRINDULARIA

—Helmugari so

Etapari berria

TXIRRINDULARITZA

“Prestatzaile fisiko gisa karreretara kirolariak errekuiperatuta iristea da nire lehentasuna”

ARITZ ARBERAS (Zuhatza, 1986) Euskadi Fundazioko prestatzaile fisiko izendatu dute. 2008 arte txirrindulari gisa aritu zen talde ezberdinetan. 2009tik, ordea, prestatzaile eta zuzendari lanetan ibili da.

ERREDAKZIOA | Xabi Zalvide

ARITZ ARBERAS prestatzaile fisikoa da. Betidanik ibili da bizikletan; bere pasioa dela dio. IVEF ikasi zuen, kirolean lan egiteko.

Prestaketa fisikoaz arduraturako zara. Erronka al da zuretzat?

Bai, noski. Bati izan behar da erronka, gauzak ondo ateratzeko hala ikusi behar dira. Esperientzia pixka bat badut, eta ondo egitea espero dut. 2009an Naturgaseko prestatzaile eta zuzendari lanetan sartu nintzen, bi urte eman nituen. 2012an Orbea taldean, kontinental –profesionala– dena. Iaz, Euskadi taldean zuzendari eta prestatzaile ibili nintzen. Aurten, prestatzaile izango naiz bakarrik. Zuzendari gisa taldea eramatea eta prestakuntza bermatzea lan asko da. Aurten aukera ateratu eta aurrerapausoa ematea eta hobetzea espero dut.

Zein izango da zure lana?

Txirrindulari guztien eguneroko prestaketa. Entrenamenduak, programak, planifikazioak, nutrizioak, teknologia berriak taldean sartu, azken iker-

ketek diotena taldean aplikatu... Txirrindulariengandik jasotzen dudana informazio fisiko guztia jakinarazi. Hala ere, hori denboraldi amaieran ikusiko da, orain arte niretzat bakarrik egin dudalako lan hori.

Azkenean Euskadi Fundazioak eutsi egin dio. Pozik, ezta?

Bai, poztekoa da. Proiektu hau beharrezkoa da euskal txirrindularitzan eta gure kirolariek profesional mailan aukera bat izateko. Taldeak aurrera jarraitzea euskal txirrindularitza guztiarentzako ona da. Migel Madariagak 20 urte daramatza taldea ateratzen eta aurten arazo askorekin baina berriaz ere lortu du.

Zein da gauzarik garrantzitsuen txirrindularitza talde profesional baten prestakuntza fisikoari heltzeko orduan?

Bat esatea zaila da. Aspektu askotan jarri behar da begirada. Prestatzaile fisiko gisa niretzat lehentasuna errekuiperazioa da. Horretarako entrenamendu eta elikadura zehatzak egin behar dira. Lasterkariak psikologikoki lasaitasun eta motibazio zehatz bat izan behar dute.

2013. urteari dagokionez taldearen ikuspuntutik

“Oso nekatuta baina pozik amaitu dut urtea. Oso gogorra izan da, baina neke positiboa da. Joan garen karrerak ondo ateratu dira”

zein balorazio egiten duzu?

Oso ona. Oso pozik egon gaitzke. Urte osoan denetarik egin dugu. Garaipenak izan ditugu, indibidualki jokaldi oso onak ere bai... Talde gisa oso ondo konpondu garelako demostratu dugu. Aukera asko izan ditugu: lider bat defendatu behar izan dugu, lider bat atakatu behar izan dugu... Horri lagundu diona talde bat izan garelako da.

Eta pertsonalki?

Oso nekatuta amaitu dut urtea, oso gogorra izan da. Baina neke hori positiboa izan dela uste dut, gauzak ondo egin ditugu eta asko exijitu diegu gure buruei. Hala ere, pozik. Lana ondo egin eta prestatzean askotan gauzak ez dira ateratzen. Joan garen karrerak ondo ateratu dira.

Txina aldean ibili zarete lehiazten aurten. Nolako herrialdea da txirrindularitzarako?

Txirrindularientzako herri zaila da baina gobernuak aldatzen saiatzen ari da. Gu egon ginen karre-

ra gobernuak ordaindu zuen, bizikleta promozionatu eta zabaldu nahi duelako.

Anekdotarik?

Asko. Gure itzultzailea eguneroko zetorren kotxean gurekin karreran. Ni 10.000 pertsonetako herri batean bizi nintzela esan nion. Hiri batean geunden, zenbat bizi ziren galdetu nion eta berak hori ez zela hiria, herria baizik erantzun zidan. 500.000 lagun bizi ziren.

Kirol mailan zein helburu ezarri dituzue denboraldi honetarako?

Txirrindularitza profesionalen garatzea da taldearen helburua. Hori da hasierako puntua. Ezin dugu garaipen helbururik jarri txirrindulari gazteak direlako eta ikasten dabilzalako. Guretzat helburua ez lortzea txirrindularien eboluzioa ez ikustea litzateke.

Beste aiaraldeen bat izango duzu taldekide, Jon Larrinaga lezamarra. Zelan ikusten duzu iazko denboraldi bikainaren ondoren?

Jon oso talentutsua da. Berekin 5 urte daramatzat lanean eta oso ondo dabil. Aurten hori demostratu du. Beretzat zaila izango da, ez genioke eskatu behar iaz 3 garaipen egin bazituen aurten 5 egitea. Txirrindularitza ez da horrela, garaipenak lortzea oso zaila da. Aurten bere aurrerapausoa World Tourreko talde batekin kontratu bat lortzea izango litzateke, beste talde batera pasatzea.

Azkenengo urteetan ohitura izan den bezalaxe, Australiarako bigarren egongo nintzateke garai hauetan. Denboraldi lehenengo lasterketara. Ilusio berriekin eta ondo hasteko gogoekin.

Dena aldatzen da orain. Nire ametsak, helburuak, ilusioak eta ogibidea, kirol bati lotuta egon dira beti, baina hemendik aurrera, guzti horrek beste lehentasun bat hartuko du.

Aldaketa nabarmena izango da niretzako. Orain, txirrindularitzarekin zerikusia duen edozein gauza, denbora libre pasatzeko era bat baino ez da izango. Hori pentsatzen dudanean oroitzapen asko datozkit burura.

Hainbeste kilometro errepedetan... Txirrindulari nintzenean 30.000km inguru urtero bizikleta gainean. Eta azkenengo bi urteetan kotxea gidatzen, are gehiago. Australian, Kananan, Txinan, Polonian eta Europako inguru askotatik ibili naiz kilometroak eginez. Baina ez hori bakarrik, kilometroez gain, jende asko ezagutu dut, lagun berriak egin ditut, eta hainbat eta hainbat gauza ikusi eta ikasi. Bat-batean amaitu da dena. Baina, ez dut pena sentsaziorik nahiz eta ziurrenik, bizipen horretako eguneroko momentu batzuk faltan botako ditudala argi izan.

Garai berri bat hasteko ilusio handia ere badaukat. Txirrindularitzak orain arte egiten utzi ez dizkidan gauzak egiteko gogoia dut. Astebururo familiaz gozatzeko edo alaba eguneroko nola hazten den ikustea adibidez.

Etapari berria daukat aurretik.



AIARALDEA IRRATIA



AIARALDEAN EKOIZTUTAKO IRRATIA. 24 ORDUKO EMISIOA EUSKARAZ

Aiaraldea Irratia 2012ko abenduaren 3an jaio zen -Euskararen Nazioarteko Egunean- euskarari beste leiho bat irekitzeko helburuarekin. Izan ere, ordura arte ez zegoen eskualdean euskara hutsezaritzen zen irratiarik, gehienez elebidunak izaki euskal hizkuntzaren presentzia eskasa zen. Horregatik, tokiko hedabideak euskalduntzeko euskara hutsezko 24 orduko internet irratiaren sortu zuen Aiaraldea Komunikazio Leihoak.

Kalean, zuzeneko irratsaioak

Amurrioko Txakolin egunean hasita, eskualdeko ospakizun garrantzitsuetan kaletik zuzeneko irratsaioak egin dira. Amurrioko Araba Euskaraz festan, esaterako, egun osoko irratsaio berezia egin zen udaletxetik. Megafoniarren bidez, ibilbide osoan zehar egon zen entzungai. Besteak beste, Aresketa ikastolako zuzendaria, Erramun Martikorena eta Zuriñe Hidalgo abeslariak hartu zuten parte programa berezian. Teknologiek eskaintzen dituzten baliabideak aprobetxatuz, erabiltzaileek ere parte hartzeko aukera izan zuten. Horretarako, kalean egiten diren zuzeneko emanaldi guztietan bezala bi bide jarri ziren eskura: twitterren @aiaraldea aipatzea edo 688848152 erredakzio telefonoa whatsapp bat bidaltzea. Era honetan, ikusle edo entzuleen mezuak jaso eta hartu emanak handitu dira.

Bestalde, Euskararen erabilera sustatzeko, ikastetxeetako makina bat haur eta gazte hurbildu dira estudioa proiektua ezagutu eta haien programa grabatzera.

*** info:** [@aiaraldeafm](https://twitter.com/aiaraldeafm) **web:** <http://fm.aiaraldea.com/nor-gara/>

EUSKAL HERRIKO BESTE IRRATIETAKO SAIOAK ERE ENTZUNGAI

24 orduko emisioaren baitan nola Aiaraldea Irratiko hala Arroza Sareko programak entzun litezke. Arroza Sarearen bitartez, Euskal Herrian eta euskaraz ekoizten diren irratsaioak trukatu egiten dira. Era honetan, Aiaraldean egiten diren programak Zintzilik irratiaren entzun litezke, edo Antxeta irratiatik aukeratutako saioak Aiaraldea Irratiaren bidez jarraitu.

Euskal Herriko 17 programa

Aiaraldea Irratian Euskal Herriko bost irratietak

17 programa entzun daitezke. Hala Bedi irratiak, esaterako, Hiru Kortxea, Erro ta berri, Zebra Bidea, Zuria Beltzez, Zaharrak berri eta Bertxoko saioak jasotzen dira astero. Bilbo Hiria irratiak, aldiz, Ibaizabal Magazina, Asteko onenak, Esanak Esan, Piknik, Piperpolis eta Artayorran Hobeto ekoizpenak. Info Zazpi irratiak Xolomo Gangsta eta Kingston hiria saioekin ere goza liteke. Baita Antxeta, Arraio eta Zintzilik irratiak, Gonenkin Ero Bero, Gurasuak eta Matxura Buruan saioekin ere.

Irriatsaioak

INFORMAZIOA



Aktualitateari lotutako informazioa, elkarrizketak, iritziak eta deialdiak Harian magazinean.

HARIAN MAGAZINA: Aiaraldeko gaurkotasunetik tiraka

Harian albistegia Aiaraldea.fm irriatiak eta Aiaraldea.com atariak ekoizten duten magazina da eta bere bigarren ikasturtea da hau. Asteleheneetik ostiralera egunero emititzen den programa bakarra da. Saioa egitez proiektuko langile bat eta lau boluntario ardura-tzen dira.

Euskarahutsezko berrien eman-kizun honetan eskualdeak du protagonismo osoa eta lantzen dituen gaiak eremu horren esparru ezberdinetan kokatzen dira. Azken ezau-

garri hau ikasturte honetan ezarritako irizpidea da, pasa den ikasturtean Euskal Herriko eta munduko albisteak jasotzen baitzituen berria. info webgunearen bitartez.

Saioa atal ezberdinetan egituratzen da. Izan ere, aiaraldea.com atari informatiboak dituen euskarriren bitartez (sare sozialak barne) argitaratutako azkenengo albiste berri ematen du.

Aiaraldearek ere zuzenean saioaren zati handi bat okupatzen dute. Egunero gutxienez elkarriz-

keta bat partekatzen baita entzuleekin. Eskualdeko gaurkotasunean arlo ezberdinetan eragiten duten pertsonak entzuteko aukera ematen du horrela Harian Magazinean: kirolean, kulturean, politikan, lan munduan...

Honen ostean, Harian albistegiak agendari zabaltzen dio tartea, entzuleek urrun joan gabe ere aisialdian ondo pasatzeko parada izan dezaten. Eta bukatzeko, eguraldiaren aurreikuspena jasotzen da, euskalmet zerbitzuaren eskutik.

RZ GOMENDIO SAIOA "Bizitza gozatzeko aholkuak dira"



Iraia Garaio eta Izar Mendigurenek egiten dute RZ saioa

Zein da zuen RZ?

Bizitza goxoagoa eta errazagoa egiteko gomendioak ematen ditugu RZ-an. Ez dira sukaltzeko erretzetak. Arazo ezberdinei konponbideak emateko pautak baizik. Umo-

rearekin adituen ikerketa eta gomendioak eta gure esperientziak partekatzen ditugu. Guk asko ikasten duguirratsaioari esker.

Nola erabakitzen dituzue gaiak?

Momentuko gaiak jorratzen ditugu. Astero gai bat hautatzen dugu. Ajeari nola aurre egin, etxean nola aurreratu, kotxea nola zaindu...

Batzuetan gauzek dituzten alde onak eta txarrak aztertzen ditugu: negarra eta barrea, adibidez. Nahi izanez gero, jendeak bere proposamenak edo opariak bidaltzeko aukera du.

Zeintzuk dira saioaren atalak?

Hasieran gaiarekin zerikusia duen abesti bat jartzen saiatzen gara. Gero, gaiari sarrera egiten diogu eta bide batez azpiatalak aurreratu. Ahalegin berezia egiten dugu gomendioak etxean daudden gauzekin egin ahal izateko. Inguruan ditugun baliabideak garrantzitsuak dira guretzat. Askotan ez da beharrezkoa sendagilearengai-

HEZKUNTZA



Julene Onaindiak eta Irati Mendigurenek gidatzen dute saioa.

AISZIRIMOLA "Hezkuntza eta hezkidetzaz lantzen ditugu"

Zein gai mota lantzen ditu Aiszirimolak?

Hezkuntza formala eta ez formalean sartzen diren esparru guztiak. Ikastetxetan topa daitekeen sistema arautua da hezkuntza formala. Ez formala aldiz, aisialdian edo denbora librean jasotzen dugu, kontzienteki edo ez.. Kultur aniztasunari eta hezkidetzari ere garrantzia handia ematen diogu.

Hezitzaileak dira zuen publikoa?

Bai, aintzat izanda hezitzaile hitzak kolektibo handia hartzen dute: gurasoak, lagunak, dendariak, senideak.... Esparru hau interesa-

tzen zaion edonori dago zuzenduta.

Nola hurbildu zarete mundu honetara?

Gutako batek magisteritza ikasi du. Gainera, begiralea, hezkidetzan aditua da eta sexualitatearen inguruko ikasketak egiten dabil. Bestalde haur masajeak egiten ditu. Egunerokotasunean hezkuntza formalean dabil.

Bestea komunikazioaren mundutik hurbildu da mundu honetara, baina Urtxintxan lan egiten du, hezkuntza formalean zein ez formalean aritzen da. Haur Hezkuntzan eta begirale gisa ere trebatuta dago.

HISTORIA

KLIOREN BASOA. Euskal Herriaren historian sakonduz

Euskal Herriko historia hartzen du mintzagai Klioren Basoa: Sohü-tatik Biasterira eta Paleolitotik azken hamarkadetarara. Euskal historia ez delako batera anodinoa izan. Garai orotan dago gatzeta eta piperra, gozo baino gaziagoak diren ha-maika gertaera... Zentzu horretan saioak egiteko primerako gai-harrobria du.

Aldi berean, saioa egiten duen pertsonari eta historiari edozein kutsu mitiko kentzea gustatzen zaio, ezin daiteke izan gaur egungo edozein abstrakzioaren justifikatzaile eta. Saioak ez dauka atal finkorik, astero hogeibet minutu angai-

bat hartu eta lantzen du Edorta Morenok. Jorratutako pasarte historikoaren artean euskararen estandarizazio prozesua, Konbentzio Gudua eta Nafarroako Konkista egon dira, besteak beste.



MUSIKA

EUSKRATS

"Musika elektronikoaren zaleentzat da"



Zer da Euskrats?

Euskrats musika elektronikoaren euskaldun zaleei zuzendutako irratsaioa da. Zentzu horretan, musika elektronikoaren inguruan informazio gehiago jaso duenarentzat edo mundu honetan murgildu nahi duenarentzat interesgarria izan daiteke. Astero, Eder Mendia eta lera Garaio ibiltzen gara dauden hamaika estiloetatik bat aurkezten, nazioarteko eta bertako dj-en berri emanez.

Saioak atal finkoak ditu?

Azken berriei buruz eta nazioarteko zein tokian tokiko agendaz informatzen dugu. Noizean

behin Djak elkarrizketatzen ditugu Bestalde, gure saioetan musika elementu nagusia bada ere, entzuleak ere protagonista izan daitezke. Haien ekarpenak sare sozial edo posta elektronikora bidali ditzakete, guztion arteko elkarlan bat bihurtu dadin Euskrats. Horretarako, Facebooka erabiltzen dugu batez ere.

Eta zein zentzutan parte hartu dezakete entzuleek saioetan?

Emanaldi bakoitzaren amaieran hurrengo asteko estiloa edo diskoetxea iragarri dugu. Aste oso bat izaten du entzuleak, beraz, gai hori ekarpenak helarazteko.

TAUPADAZ-TAUPADA: Musika eta sormen librea



Taupaka Elkartearen irratsaioa da. Bere helburu nagusia musika librea (sormena librea orokorrean) zabaltzea da. Alain Berazak gidatzen du programa. Taupaka Elkartearen filosofia irratira eramateko

modu bat, sorkuntza-lanak ulertzeko era bat da saioa. Edozein motatako musika entzun daiteke irratsaio honetan (punk, rap, reggae, metal...). Beraz, musika gustuko duen edozeini zuzenduta dago.

ZINEMA



Lander Arteagak jartzen dio ahotsa Zinema Uneak saioari.

ZINEMA UNEAK: Zinema eta telesailak aurrez aurre

Zein da Zinema Uneak saioaren egitasmoa?

Zinema eta telesailen mundua

entzuleei hurbiltzeko modu ezberdin baten bila, astero egindako saio honen helburua, ikus-entzunezko

munduaren azken berrien bozgorailua izatea da. Albiste freskoenak, asteroko estreinaldiak, telesail baten aurkezpena eta soinu bandaren konpainia direlarik saioan zehar aurkituko ditugun atalak.

Zein da saioaren bitxitasun handiena?

Noiz eta non grabatzen den. Lan arrazoiengatik azken hilabeteetan etxetik kanpo bizi behar diren ondorioz Madrilan grabatzen da Aiaraldea Irratiko zinema saio hau. Hiri horretan euskaraz irratsaio bat ekoizten den bigarren aldia da. Gainera, lan ordutegiak medio, gehienetan saioa gaueko ordu txikitik grabatzen da, 04:00-06:00ak artean... Dударik gabe, irratsaio hau ezberdina da guztiz.

GAZTERIA



ÑAU: Eskualdeko Gazte mugimenduaren ahotsa

Ñau! Aiaraldeko gazte proiektu komunikatiboa da, eta "Ñau! irratsaioak proiektuaren eragileen bozgorailua izatea du helburu. Hala, eskualdeko gazte mugimenduaren nondik norakoak kontatzen ditu. Zentzu horretan eskualdeko

gazteriarentzako tresna komunikatiboa bilakatzea nahi du. Eragileei euren ekintza eta ekimenen berri emateko aukera da.

Irratsaioa, gehienbat, elkarrizketaz osatua dago, baina agenda eta musika ere presente ditu.

UMOREA

INTERLOBOTOMIA: Ero umoretsuen asanblada, ostiral gauak entretenitzeko




Interlobotomiako kideei horrela aurkezten dute haien saioa: "Lau aiaraldea eta patu bat (kuak! Kuak!)". Nahiz eta umore politikoa jorratu, saio honetan nihilismo-juancarismo-felipismo-azarismo-stalinoanarkismo-aranismo-mourkullismo-marximootegismo korronteen ildoak ez dituzte gartzatzen eta nahiago lukete Fernando Alonsok "Kontxa" edo "Ugarteko

Torneoa" irabaziko balu. Bere balizko publikoa, haien ustez, edonor izan daiteke, bereziki belarririk ez duen jendea. Nahiz eta bere saio bakoitza ezustea izan, atal finko bat dute-mikroa, kablea, ordenagailua eta ardoaz gain, noizbait brandyak ere laguntzen dio.

Egunerokotasunari lotuta dago eta "Gulag-erako kandidatua" deitzen da.

_Irratiko programazioa



- AIARALDEA IRRATIA
- BILBO HIRIA IRRATIA
- ARROSA SAREA
- UHINAK IRRATIA
- HALA BEDI IRRATIA
- INFO 7 IRRATIA
- GURE IRRATIA



IRRATSAIO BAT EGIN NAHI DUZU?

Zeozer garrantzitsua komunikatu nahi duzu? Edo agian mezu arin bat? Gogoko duzun musika edo gai baten inguruan dituzun ezagutzak jendearekin partekatzea nahiko zenuke? Zure buruan sor-

tzen diren hainbat istorio uhinetan askatzeko prest zaudede? Irratiaren magia frogatu nahi duzu?

Hori guztia zure esku duzu Aiaraldean dagoen irrati euskaldun bakarrari esker. Zuk

egindako irratsaioa aurrera atera nahi baduzu, Aiaraldea.fm proiektuan parte hartu dezakezu.

Harremanetan jartzeko idatzi hurrengo helbidera: irratia@aiaraldea.com

NON eta NOLA ENTZUN IRRATIA?

UHINAK IRRATIAN Arratsalde guztietan 18etatik 21etara Aiaraldea Irratiko saioak entzungai.

AIARALDEA.COM Irratia 24 orduz online entzun, edo azkenengo saioak jo.

AIARALDEA APP Deskargatu Aiaraldea.com-en APPa eta entzun irratia online eta saioka.

FM.AIARALDEA.COM Emisioa online, saioak banaka entzun, deskargatu eta inforazio guztia eskura.



_kirola

ESKIA: Martxo bitarte 6 irteera egingo ditu Elur Taldeak



Elur taldeak iaz Aspenera egindako irteera bat Argazkia: Elur Taldea

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Amurrioko Elur Taldeak sei irteera⁽¹⁾ prestatu ditu 2014an. Helburua eskiaz eta elurraz gozatzea da. Horretarako, urte berria hasi eta Amurrioko Elur Taldeak eskia praktikatzeko egutegi mardula⁽²⁾ prestatu du.

Urtarrila eta martxo bitarte sei irteera antolatuta dituzte.

Amurrioko klubak azaroaren 15ean egin zuen 2013-2014 elur denboraldia prestatzeko asanblada. Abenduaren 5ean abiatu zuten ibilaldien dinamika. Lehenengo geltokia Caunterets izan zen.

Ibilaldia egin ostean⁽³⁾ 2014ko programari ekingo diote. Oraindik irteera guztien helmuga zehaztuta ez badago ere datak finkatu dituzte. Azaldu dutenez, iazko eskema berdina jarraituko dute, irteera bat bi astean behin.

Lehenengo txangoa⁽⁴⁾ urtarrilaren 10etik 12ra egin zuten. Irtenaldi horretan Amurrioko eski klubak ondo ezagutzen duen Frantziako Luz-Ardiden eski estazioa bisitatu zuen.

Ez, ordea, bakarrik. Izan ere, Luz-Ardideneko txangora Bilbo-ko Bilbobentura taldearekin joan ziren, beste hainbatetan egin duten bezala.

Aurtengo irteeren arrakastan bariaizango dela dirudi, lehen irteera honetarako zeuden plaza guztiak bete baitzituzten.

Gainontzeko bidaiei dagokienez, hurrengo irteeran Peyragudes-era (Frantzia) joateko asmoa zabaldu

dute. Datorren asteburuan izango da ibilaldia: urtarrilaren 24tik 26ra.

Otsailaren 7tik 9ra, aldiz, Frantziar Piriniotara hurbilduko dira eta otsailaren 21etik 23ra iaz hainbatetan bisitatu zuten Baqueira-Beret (Katalunia) estaziora joango dira.

Alabaina, denboraldia ez da hor bukatuko, martxoan beste bi irteera prestatu dituzte eta.

Azken martxak martxoaren 7tik 9ra eta 21etik 23ra egingo dituzte. Hala ere, oraindik finkatzeke dute irteera horien helmuga. Informazio gehiago eskuratu ahal da www.elur-taldea.com webguneko egutegian eguneratzen joango dira.

Izen ematea

Aurten irteetara apuntatzeko modua aldatu egin dute, sistema errazten saiatu baitira.

Elur Taldearen web orrian sartu eta bertan irteeraren prezioa baieztatzea⁽⁵⁾ da lehen pausua. Adierazi dutenez, kontuan hartu behar da klubeko kide ez izateagatik edo federatuta ez egoteagatik 5 eta 6 euroko gehigarriak ordaindu behar direla hurrenez hurren.

Ondoren, ohiko kontu zenbakietan dirua sartu behar da (eskiaz zaille bakoitzak diru sarrera bana), inskripzio orria bete eta bukatzeko inskripzio orria eta diru sarrearen egiaztatzea posta elektronikoz bidali.

Beharrezkoa den informazio guztia web orrian dago eskegita: kontu zenbakia, inskripzio orria...

Elur Taldeak euren berri eta nondik norakoaren informazioa posta elektronikoz eskuratzeko aukera dago web orrian harpidetuz.

Eski denboraldi ona

Aurtengoa eski denboraldia ona izango dela dirudi. Abenduaren 1ean hasi eta martxoaren erdialdean amaituko den denboraldi honetan eski estazioek aurreko urteetako markak haustea dute helburu.

Amurrioko Elur Taldeak bisitatu duen Baqueira-Bereteke estazioak 78.000 bisita jaso zituen aurreko denboraldian. Frantziako estazioetan, amurriotarrek bisitatu berri duten Luz-Ardiden esaterako, arrakasta handia ari dira lortzen azken aldiaren euren elur kalitatea eta prezio eskaintzak direla medio.

Datorren asteburuan Peyragudesera (Frantzia) gerturatuko dira. Eskiatzeko 60 kilometro baino gehiago ditu, pistarik altuenak 3000 metro tara kokatzen direlarik.

Apirilean eskiatzeko garaia⁽⁶⁾ bukatu arte, beraz, egongo da eskualdetik abiatuz gozatzeko para-radarik⁽⁷⁾.

Hiztegia: irteera⁽¹⁾, ibilaldia / mardula⁽²⁾, osatua / ostean⁽³⁾, gero / txangoa⁽⁴⁾, ibilaldia / baieztatu⁽⁵⁾, konfirmatu / garaia⁽⁶⁾, denboraldia / parada⁽⁷⁾, aukera.

ARTZIKIROLA

“Satisfakzioa da bertan sortutako kirol bat aurrera ateratzea”

RAMON REY GÓMEZek (Artziniega, 1963) “artzikirola” asmatu du. Izandako harrerarekin oso pozik dago.

ERREDAKZIOA | Xabi Zalbide

RAMON REY GÓMEZ (Artziniega, 1963) artzikirolaren sortzaile eta bultzatzailea da. 2013an egindako lana, planak eta erronkak azaldu ditu.

Gabonetako artzikirol-txapelketa jokatu zen Artziniegan. Zelan joan da?

Nahiko ondo egon da, lehia bizi izan da eta guztira bost taldek hartu dute parte, Artziniega eta Amurrioko jokalariekin, neskek zein mutilak.

Zer balorazio egiten duzu 2013. urteari buruz, txapelketa, parte-hartzaile eta eskola-kirolari dagokionez?

Txapelketak dira aurrera ateratzen zailena, baina era berean oso ikusgarriak dira publikoarentzat. Parte-hartzeari dagokionez urte ona izan da nire ustez; ikasketxeetan batez ere biderkatzen ari da parte-hartzaileen kopurua, nahiz eta oraindik kirol nahikoa ezezaguna den. Gehiago sustatuko balitz are interesgarriagoa litzateke beste askorentzat. Zallan adibidez Gabonetako jardueraren barruan artzikirola sartu dute eta lau-rogel ume ibili dira praktikatzen, Artziniega-ko lau begirale-
ren laguntzarekin.

Urte batzuk eman dituzu dagoneko ki-

rol berri hau bultzatzen. Zer eman dizu zuri pertsonalki? eta praktikatzeko duen jendea?

Ni neu, kirol moduan sustatzen hasi nintzenetik, guztiz sinetsita egon naiz duen baliagarritasunaz. Kirolak berak elkarren osagarri diren hainbat arlo uztartzen ditu, oso dinamikoa da eta gainera edonork praktikatu dezake. Horretaz gain, nire satisfakzio pertsonala da bertan eta nik neuk sortutako zerbait aurrera atera dela, jaso dudana gutxieneko laguntzari esker eta kirolaren profesionalen eta praktikatzen aritu diren neska-mutilen errekonozimenduekin.

Zein dira hasi berri den urte honetarako planak eta erronkak?

Gauza asko egin gura ditut baina denborak baldintzatuta nago; estu ibiltzen naiz, nahikoa astirik ez daukat eta. Planei dagokienez, lehenengo eta behin Balmasedako eskola publikoan artzikirol klaseak eman nahi ditut. Gero, Nafarroan ere badut artzikirola eskoletan sartzen hasteko proiektu bat eta Gas-teizen asmoa daukat Artzikirolaren Eguna ospatzeko. Amurrion ere jende nagusiagoarekin zerbait egin nahiko nuke.



_kultura

Xabier Santxotena

"Eskultura bakoitza poema bat da. Niretzat artea espresibidea da"

XABIER SANTXOTENA eskultoreak *El universo de Santxotena* liburua kaleratu du. Bertan, 1973tik 2013ra arte egindako lanak eta eskulturen azalpenak agertzen dira.



Xabier Santxonena, basoa irudikatzen duen eskultura alboan duela Argazkia: Aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Xabier Santxotena (Arizkun 1946) eskultorea da. Eskultura bakoitza olerki bat dela dio.

Zer da zuretzako artea?

Sentimendua bezalakoa da. Jaio nintzenetik etxean beti ikusi izan dut egurra lantzeko aukera. Niretzako espresibidea da, baina beste posturan jarrita batzuen-tzat negoziua ere izan liteke.

Eskualdeko eskultore baka- rrenetakoa zara. Nondik datorki- zu lotura?

Nire aita, aitaxi eta aitaxin aitaxi zurginak ziren, tailagileak Eskultura egin baino lehen etxean ikusitako gauzak egiten nituen: egurrezko harriak, kutxak taila- tuak ordulariak...

Egurrezko eskulturak oso mo- telak dira, denbora eskatzen dute astunak direlako. Kolpez kolpe egin behar dira. Buru erraldoi bat egiteko 6-8 hilabete behar dira. Beti izaten ditut 3 pieza, batekin ez aspertzeko.

Nola laburtuko zenuke orain arte egindako bidea?

Zaila da. Obra asko ditut, gero eta gusturago nabil. Nire obrak beti Euskal herriaren inguruan daude. Euskal Herria oso abera- tsa da, gai izugarriak ditugu. Be- raz, ez dugu beste lekutara joan

beharririk, bertan gauzak egiteko harrobi izugarria dugu.

Nire lanbidea berez sukaldari- tza da. Araban bi jateke izan ni- tuen; 1980tik 1997 arte egon ni- n-tzen. Orduan etorri nintzen Artzi- niegara, ostalaritzako guztia utzi- ta eskultura bakarrik egitera. Es- kulturan 43 urte daramatzat.

Jorge Oteiza ezagutu zenuen. Nolatan?

1969an Zumarragan izan zen. Oteizaren eskutik hasi nintzen es- kulturan, orain arte. Barruan du- dan sua bezalakoa da eskultura, edozein materialetan zerbait era- kutsi nahi duzu. Nire materiala egurra da,

El universo de Santxotena libu- rua aurkeztu duzu..

1970etik 2013ra arteko lan guztiak bildu ditut: 370 bat pieza handi, txikiak...

Baztanen eta Aiaraldean hiru museo dituzu. Zer erakusten da bakoitzean?

Lehenengoan, Arizkuneko sor- tetxean, historia, artea eta tra- dizioa. Bigarrena, parke bat da. 35.000 metro ditu eta borde- tan mitologia eta agoteen inguru- ko egurrezko eskulturak daude. Kanpoan burdinazkoak, brontze- zkoak eta hormigoizkoak daude.

"Egurrezko eskultura motela da. Buru erraldoi bat egiteko 6-8 hilabete behar dira. Beti ditut ez aspertzeko 3 pieza"

"Orain euskal emakumeak omentzeko erretratuak egiten nabil, beti gizonezkoak azaltzen direlako lehen postuan"

Mitologiarena oso mundu abera- tsa da.Hirugarrena Artziniegakoa da. Tailer museo da, Bozetoeta- tik obretara bisitariak eskultura nola hasi eta bukatzen den ikas- ten dute, zer esan nahi duten eta gaiak nola hartzen diren.

Poesia idazten ere aritzen zara.

Bai. Eskultura bakoitza poema bat da, olerki bat da derrigorrez. Horretan 1992an hasi nintzen, ilo- ba bat istripuz hil zitzaidalako. Orain noizbehinka egiten ditut, du- dan denboraren arabera. Horre- tarako egunero mendira joaten naiz ordu batez, lasaitasunarekin ideiak hartzen dituzulako.

Arteak museoak baino bide gehiago behar al ditu hedatzeko?

Bai. Artea edozein modutan za- baldu daiteke: hitz eginez, kon- ferentziak emanez... modu asko daude eskulturak zabaltzeko.

Hitz batean nola deskribatuko zenuke artearen egoera?

Dena da artea. Garai batean 30 urteko mugimenduak izaten zi- ren: kubismoa, inpresionismoa... Gaur, egun batetik bestera alda- tzen dira. Artea askotan komer- tzioa da. Galeria batzuk zeruan jartzen dituzte, eta beste batzuei kasurik ere ez. Garrantzitsua iza- teko galeria edo bide bat hartzea beharrezkoa da. Gaur egun ez da egurra eskulturetan hainbeste lantzen; instalazioak, ikus-entzu- nezkoak... beste mundu batean sartuta gaude.

Artearen ikuspuntutik gauzak hobetzeko zer aldatu beharko li- tzateke?

Bakoitzak bere nortasuna izan behar du, eta hortan segi. Nire- tzat hori da bidea. Posturaz alda- tzea -gaur bata eta bihar bestea- ez dut ondo ikusten. Hor ditugu ereduak: Txillidak eta Oteizak bide bat hartu eta segitzen zuten, hor- tan dago gauza. Bakoitzak bere barruko gauza erakutsi behar du.

Aurrera begira, zein erronka di- tuzu?

Orain, emakumeen buruak egi- ten nabil, herri hau matriarkalista delako eta beti gizonezkoak azal- tzen direlako lehen postuan. Eus- kal emakumei omenaldia egin nahi diet erretratu eskulturak egi- nez. Dolores Ibarruri... Batzuk ikusgai daude dagoeneko.



Mikel Ayllon IDAZLEA

_Kamerinoa

Babaloreen kontra

Pasaidazu mopa! -oihu egin diot eszenatokiaren bestaldean belauniko zo- ruua trapuarekin igurz- ten ari den Mariri. Zer gertatzen den ikuskizuna amaitu, fokuak itzali eta antzokia husten denean? Bada, garbitu egin behar dela. Eta horre- tarako gaude gu, Mari eta biok. Za- pata-zolen arrastoak, antzezleek nondik nora joan behar duten jaki- teko eszenatoki gainean itsatsita geratzen diren markak... Ez al dizu inbidiarik ematen honek?

-Inbidia zerk? Kultura saleroste- ko azoka honek?

-Ene, neska! -begirasun gogo- rra egin diot-. Ba nik gustura hartu- ko nuke horrelako bat nire herrian, edo BEC erraldoiako bat bertso fi- nalak jokatzeko, edo Guggenheim bat!

-Guggenheimek hil zuen Kukutza. Poeta bati entzun nion irratian.

-Poeta bat? Irratian? Seko zora- tu zaigu mundua!

Mari da orain begirasun gogo- rra egin didana, zoruan itsatsita- ko markaren aurka borrokatzea- ri utzi gabe.

-Hara, badakizu zer egin beharko genukeen?

-Belarriak zabal-zabalik naukazu -esan diot burloizez.

-Greba bat. Mugagabea. Hemen- txe bertan.

-Zeren alde?

-Alde, ez. Kontra! Babalore guz- tien kontra! -mitinetako azentua ja- rri du Marik.

-Baina publikoa kanpoan ala ba- rruan utzita?

-Kanpoan -erantzun du, galde- ra zertara datorren ondo ulertu gabe-. Iraultzak ipurdi gutxiago eta esku gehiago behar ditu -eta zu- tik jarri da, suminduta, taula gaine- ko itsasgarria osorik kentzeko bo- rrokan galtzaile-. Eta, ahal dela, non jarri behar dugun esaten di- guten pegatarik gabepegatina- rik gabe!

2013 URTEKARIA

AIARALDEA IRUDITAN

SOZIOEKONOMIA

EUSKARA

URTARRILA

AMURRIO
Langile bat hil da lanistripu baten ondorioz Tubacexen enpresan



AIARALDEA
"Stop Etxegabetzeak Aiara" elkarteak egoitza berria ireki du

LAUDIO
JEZ eta LIPmesa fabriketan langileek mobilizazio bateratua egin dute



AMURRIO
Bi lagun atxilotu dituzte Lazaro Ituarte enpresan Irani balbulak saltzeagatik

LAUDIO
Lan hitzarmena sinatu dute Guardianen



AIARA/AMURRIO
KIDER TALDEAN LAN-GATAZKA

URTARRILA
Kider enpresako zuzendaritzak langileak kaleratzeko espedientea aurkeztu



OTSAILA
Grebari ekin diote Kider enpresako langileek

UZTAILA
Kider taldea hartzekodunen konkurtsoan sartu da

AZAROA/ABENDUA
Mobilizazioak ugaritu dituzte taldeko langileek



ABENDUA
Langileek eurek behin behinean Lana Eteko Espedientea aurkeztu dute

OTSAILA

AMURRIO
Dendaz Denda: Amurrioko dendan gune berria

AMURRIO
Deguisa enpresako langileek greba mugagabea hasi dute



MARTXOA

AMURRIO/LAUDIO
Tubacex amiantoak eragindako heriotza bategatik kondenatu dute



AMURRIO
Deguisak soldatak ez aldatzea erabaki du

OROZKO
Artiach-en lanuzteak hasi dituzte 10 langile ez kaleratzeko



AIARA
Administrazio kontseiluak ezetza eman dio Etoriki enpresa handitzeari



OKONDO
Hipotekari aurre egin ezin dioten pertsonentzako zerbitzu baten berri eman du Okondoko Udalak

MAIATZA

LAUDIO
"Construcciones Pagolar" enpresak kale-ratzeak egin ditu eta LIP-mesako egoerak ez du hobera egin

LAUDIO
Raul Arza izango da UGTko Euskadiko idazkari nagusia



OROZKO
Orozkoko Transfrior enpresan greba mugagabea iragarri dute

MAIATZA

AIARALDEA
EUSKAL GEHIENGO SINDIKALAK DEITUTAKO GREBA OROKORRA

MAIATZAK 30
Jarraipen zabala izan du greba orokorra Aiaraldean



1.000 lagunek manifestazioa egin dute Laudion murrizketen kontra



Gazte bat atxilotzeko plazara sartu ostean herritarrek ertzaintza enparantzatik kalera-tu dute

UZTAILA

AMURRIO
Amiantoagatik minbiziaz gaixotutako langile bati kalte ordainak ordaintzera kondenatu dute Tubos Reunidos



URRIA

LAUDIO
Guardian enpresak industriaguneko lur zati bat jarri du salgai



LAUDIO
Lipmesa enpresak betiko itxi ditu atekak



ARTZINIEGA
Kimberly-Clark enpresan lan-erregulazio espedientea ezarri dute



AZAROA

AMURRIO
Tubos Reunidos enpresak 104 milioi euroko kreditua jaso du Europatik

AIARALDEA
TUBACEX TALDEAK LANTEGI BERRIA IREKIKO DU KANTABRIAN

URRIA
Enpresak baieztatu du Kantabriako Marina de Cudeyo herrian irekiko dutela

Alvaro Videgain taldeko presidenteak deslokalizazioa justifikatu du "Euskadin lan-gatazka asko eta langileen kostu handiagatik"



Artziniega, Amurrio eta Laudioko alkateak bileran eskatu diote Tubacex enpresako zuzendaritzari

AZAROAN
Tubacex-en deslokalizazioaren aurrean Aldundiak izandako jarrera salatu du Laudioko udal-gobernu taldeak

AIARALDEA
Urteko lehenengo 9 hilabeteetan Tubos Reunidos-ek 4,4 milioi euroko irabaziak izan ditu eta Tubacex-ek 11,85

ARAKALDO
NORTEN ENPRESAKO LAN GATAZKA

AZAROA
Norten enpresako langileek mobilizazioak hasi dituzte



Langileek Udalaren babesa jaso eta mobilizazioak gogortuko dituzte



ABENDUA
Langileek akordioa sinatu dute enpresarekin eta lanean hasi dira

OTSAILA

LAUDIO
Felix Mugurutzak audioarra euskaltzain urgazle izendatu berri dute



AMURRIO
AEK-REN EUSKALTEGI BERRIA

OTSAILA
Udalak Matias Landaburuko zati bat AEKari laga dio, haizeteak euskaltegi zaharra hondatu ondoren



APIRILA
Amurrioko Udalak eta AEKk lagapen hitzarmena sinatu dute



IRAILA
Amurrioko euskaltegi berria inauguratu dute



MARTXOA

AIARA
Mapa toponimiko berria aurkeztu dute



APIRILA

AMURRIO
"Lanbide Heziketa euskaraz, aukerarik onena!" dela bultzatzeko kanpaina abiatu du Zaroabe Institutuak



MARTXOA

AIARALDEA
18. KORRIKAK ESKUALDEA ZEHARKATU DU

MARTXOA
Korrikaren jarraipen berezia aiaraldea-com-en



Jendetza batu da Korrikara eskualdea zeharkatu den bi egunetan



AIARALDEA
Aiaraldeko mapa toponimiko berria plazaratu dute



AMURRIO
ARABA EUSKARAZ JAIA, ARESKETA IKASTOLAREN ESKUTIK

MARTXOA
Jaiaren egitaraua aurkeztu dute




APIRILA
Araba Euskarazeko kanta eta bideoklipa aurkeztu dituzte




MAIATZA
Dantza eta musika jaialdia eta beste hainbat ekitaldi Araba Euskaraz ongi etorria egiteko

EKAINA
Bero eta jende uholdea nagusi Araba euskaraz



EKAINA

AIARALDEA
Euskaradunen kopurua 5,58 puntu igo da azken 5 urteetan



UZTAILA

LAUDIO
Asier Amondo Korrikako arduradun nagusi



URRIA

AIARALDEA
EUSKARAZKO EGUNKARIA JAIO DA



AZAROA

LAUDIO
Gabriel Aresti omentzeko hamaika ekitaldi antolatu ditu Udalak



LAUDIO
Herriko 76 denda, taberna eta enpresa txiki euskararekiko konpromisoa sinatu dute



ABENDUA

AIARALDEA
Ekitaldi ugari antolatu dira Euskararen Nazioarteko Eguna



AMURRIO
Bai Euskarari ziurtagiria jaso dute 38 eragilek



Urtekarria

POLITIKA / INSTITUZIOAK

URTARRILA

LAUDIO
Hernando Lacalle eta Covadonga Solaguren Eusko Jaurlaritzan arituko dira



AIARALDEA
Aiaraldeko Ur Partzuergoak 500.000 € inbertitu ditu Maroñoko eta Artziniegako urtegiak berritzeko

OTSAILA

AMURRIO
Santiago Abascal onartu du Bärenasenak omen diren agerietan agertzen den dirua jaso zuela



LAUDIO
Manuel Ibarrola Araba Batailoiko eusko gudaria hil da



AIARA
Ozekako eta Madariako kontzejuek Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoan parte hartuko dute

MARTXOA

OROZKO
18 urteko kartzela zigorra ezarri dio Frantziak Alaitz Aramendiri presoari



URDUNA
Laku ekologikoaren proiektuak aurrera jarraitzen du



APIRILA

OKONDO
Udaletxea, jubilatuen etxea eta igerilekuetako taberna konponduko dituzte

LAUDIO
Batzokia erasotu dutela salatzen du EAJk



MAIATZA

LAUDIO
"Laudio 2025" Oinarri Estrategikoen definizio prozesua aurkeztu da

LAUDIO
2025 OINARRI ESTRATEGIKOAK

MAIATZA

LAUDIO
Andoni Aldekoa Bilboko alkatearen bulegoko zuzendari delegatua izendatua izan da

URDUÑA
UDALAREN EGOERA EKONOMIKO LARRIA

MAIATZA
Aduanako bainuetxea saltzea eskatu dio Foru Aldundiak Udalarari



"Urduñak merezi du" plataforma aurkeztu dute



EKAINA
Egoera ekonomikoa dela eta Kutzabankekin duen zorraren zati bat ez ordaintzea erabaki du udalak

UZTAILA
"Urduñak Merezi du" plataformak bere aldarrikapenak Bizkaiko Batzar Nagusietara eraman ditu



Bizkaiko Foru Aldundiak 251.313 eurotako laguntza emango dio Urduñako udalari

"Urduñak merezi du" plataformak alderdiekin batzartu ondoren EAJrekin bilduko da 29an

URRIA
"Urduñak merezi du" plataformak tokiko alderdiekin biltzen hasi da eta BFArekin bilera adostu du urriaren 14rako

ABENDUA
Udal zorra eta defizita murrizteko akordioa lortu du udalak Foru Aldundiarekin



LAUDIO
EAJk Tokiko Gobernu Batzordean parte hartzeari utziko dio behin behinean

LAUDIO
"Patxo eta Pablo kalera" ekimena aurkeztu dute

EKAINA

ARRANKUDIAGA-ZOLLO
Bandera espainiarra jartzeko aginduaren aurrean, ikurriñari omenaldia egin diote



EKAINA

ARTZINIEGA
Ekainean sartuko da indarrean trafikoa erregulatzeko ordenantza



AMURRIO
SARATXOKO SAHIESBIDEA

IRAILA
Saratxoko saihesbidea bi zatitan eraiki nahi du Aldundiak krisia dela eta



URRIA
Saratxoko saihesbidearen proiektuak ez du adostasunik lortu

AZAROA
Datorren urtetik aurrera ekingo zaio Saratxoko saihesbidea eraikitzeari

ABUZTUA

AIARALDEA
Eder Sanchez da Aiaratur elkartearen presidentea berria

IRAILA

LAUDIO
Pablo Gorostiaga bere emaztea agurtzeko garaiz ez dutela ekarri salatu dute herritarrek eta Bildu koalizioak.

Ehundaka lagunek sakabanaketaren bukaera amaitzeko eskatu dute manifestazioan.

Emazteari azken agurra ematera ekarri dute Gorostiaga.



URRIA

LAUDIO
Lanbide Heziketa Udal Ikastetxea sare publikoan sartzea posible egin dezakeen legea onartu dute Gasteizko Legebiltzarrean



URDUÑA / AMURRIO
"Amurrio Sare" proiektua eta Urduñako La Paul inguruko laku ekologikoaren proiektuak Conama sarietarako hautatu dituzte

OKONDO
San Roman auzoan gizarte etxe bat egingo dutela iragarri dute

AZAROA

AMURRIO
Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorren inguruko erakusketa antolatu du



AIARALDEA
Txaro Sarasua sozialistak Aiarako Kuadrilako Gai sozialaren, enpleguaren, berdintasunaren eta emakumearen batzordeko lehendakartzan dimisioa

LAUDIO
Manu Gonzalez preso laudioarrak gose greba mugagabeari ekin dio Sevillako espetxean

AIARA
Zuhatzeta eta Arespalditzako ur arazketa sistema berrirako finantzazioa lortu dute

LAUDIO
Kalean da Manu Gonzalez, 24 urte espetxean eman eta gero

AIARALDEA
Aiarako suhiltzaile parkea birgaitzeko 1,6 milioi euro erabiliko dituzte




AIARALDEA
Eskualdean Parot Doktrina aplikatu zitzaizaien Santos, Biguri eta Gonzalez presoek askatasuna berreskuratu dute



OROZKO
Auzo asanbladen bidez herriko lehentasunak zerrendatuko dituzte



AIARA
Kiroldegia egiteko jasotako dirua itzuli beharko du udalak



ABENDUA

AIARALDEA
Batzar administratiboetan hauteskundeak egin dira, etorkizuna kolokan dagoenean



URTARRILA

URDUÑA
Osasun eta Kontsumo Sailak kautelazko neurri gisa Bainuetxea itxi du



OROZKO
Orozkoko kuadrilen arteko topaketak




AMURRIO
GAZTETXEAREN ALDEKO OKUPAZIOAK

OTSAILA
Gazte Asanbladak jantoki okupatutik joatea erabaki du



IRAILA
Gazte Asanbladak Landazuri etxea okupatu du berriro aurreko okupazioaren epaiketa salatzen



AZAROA
Landazuriko okupazioagatik kondenatu dituzte 9 gazte. Gazte asanbladak helegitea iragarri du

Kuartel zaharreko bi gela eskaini dizkio udalak gazte asanbladari



OTSAILA

AIARALDEA
Gorobel mendizerrako kobazulo batean hartzen 30 gotorleku eta hezur ugari aurkitu dituzte



LAUDIO
4000 kilo inguru jaso dira Aiaraldetik IX. Sahararen aldeko Karabanara



AIARALDEA
Elurte gogorrek Aiaraldea estali du



MARTXOA

LAUDIO
Udalak hiru etxebizitza utziko dizkio Apdema elkarteari



MARTXOA

URDUÑA
Milaka gazte hurbildu dira hasi berri den Gazte Danbadara



URDUÑA
Jaiotzaren festa antolatu du Adi Emakumeak elkarteak



APIRILA

OROZKO
Gaztetxea zabaldu dute Orozkon



MAIATZA

LAUDIO
"Laudion bizi gara" kultur-aniztasun jaialdia elkarbizitza sustatzeko



AIARALDEA
GASA HUSTIATZEKO FRACKING TEKNIKA

MAIATZA
Fracking Ez Aiaraldea plataformak Orozkon hastear dauden frogak sismikoaren inguruan informatuko du



EKAINA
SAIA baimeneko ikerketa sismikoak hasi dira



Frackingaren eta proba sismikoaren kontrako mobilizazioak eta ekimen ugari



Presio herrikoa dela eta frogak sismikoak ez dituztela bukatu adierazi du Fracking Ez Aiaraldeak



ARRANKUDIAGA-ZOLLO
"Herri 1, 11 jatorri" kulturartekotasun jaia ospatu dute



MAIATZA

LAUDIO
INDARKERIA MATXISTAK EMAKUME BAT HIL DU



Instituzioek, eragileek eta herritarrek hilketari matxista salatu dute



OROZKO



EKAINA

AMURRIO
Udalak ingurumenaren arloan egiten duen lanari saria



UZTAILA

LAUDIO
PABLO GOROSTIAGA PREGOILARI

UZTAILA
Pablo Gorostiaga izango da Laudioko jaietako pregoilaria



ABUZTUA
PPk Pablo Gorostiaga pregoilari izendatzea gaitzetsi eta auzitara jo du eta PSE-EEK iragarri du ez duela txupinean parte hartuko

Epaile batek Pablo Gorostiaga pregoilaria izatea debekatu du eta Udalak alegazioak aurkeztu ditu

Laudioko jaietako pregoiaren irakurketa bertan behera geratu da

Jai Batzorde Paritarioak pregoiaren irakurketaren orde egun eta ordu berean herriko plazan ekitaldia egin du



AIARA
Landa eremuetan eskola garraioa mantentzeko eskatu dute Etxaurren ikastolako familiek

ARRANKUDIAGA/ZOLLO
Ezkurra aldizkariak 100. alea argitaratu du

KIROLA

UZTAILA

LAUDIO "Oporrak Bakean" jaia ospatu dute



ABUZTUA

LAUDIO 1983ko uholdeen 30.urtemuga dela-eta, jarraipen berezia eta dokumentala prestatu ditu aiaraldea.com-ek



IRAILA

ARTZINIEGA Artziniegako gurasoak Hezkuntza sailburuordearekin bildu dira Lakuan garraioko arazoak direla eta

URRIA

LAUDIO Tren geltokiko plaza eta Latorro auzoko tunela moldatuko dituzte auzotarren aldarrikapen historikoa betez



AIARALDEA Indarkeria matxistari emakumeen sareak osatuz erantzuteko topaketa deitu du Aiarako Koadrilak



AIARALDEA NAU! Aiaraldeko Gazte Proiektu Komunikatiboa jaio da




AZAROA

AMURRIO Omenaldia egingo diote Mateo Balbuena miliziano komunistari



ABENDUA

AIARALDEA A-625 errepidean auto istripuak saihesteko neurriak hartuko dituzte 5 urtetan 12 herritar hil ondoren



URTARRILA

AIARALDEA Marokoko Panda Raidean parte hartuko dute Aiaraldeko bi abenturazalek



URDUÑA C.D. Orduñak bere 50. urteurrena ospatuko du zenbait ekitaldirekin batera



AMURRIO Mendiko Lagunak Taldeak Euskal Herriko Katalogoko 600 gailurrak igo ditu



MARTXOA

OKONDO Ganekogorta Mendi Klubak 1. urteurrena ospatuko du



LAUDIO Laudioko taldea Arabako xake txapelidun



AMURRIO Joseba Aretzagak eta Anartz Bajok podiuma zapaldu dute Espainiako Aire libreko txapelketan



APIRILA

AIARALDEA Gaizka Barañano amurriarrak Enkarterriko Apuko Extrem ultratrail lasterketa irabazi du eta Jabi Olabarria orozkoarrak Oñatiko Aloña Igoera



APIRILA

ARAKALDO Garazi Larrakoetxea arakaldarrak zilarrezko domina lortu du altuera jauziko Espainiako txapelketan



MAIATZA

OROZKO Herrian praktikatzen diren kirol gutxituak ezagutarazteko asteburua antolatu dute



AMURRIO Emakumezkoen kategoriak abiatuko du Kaskagorri taldeak antolatutako futbol lehiaketa sorta



AIARALDEA ESKUALDEKO FUTBOL TALDEEN LIGA ARRAKASTATSUAK

AMURRIO Amurrio Club-ek 3. mailako igoera erdietsi du



LAUDIO CD Laudioko lehen taldea 2.B mailara igo da



URDUÑA Talde urduñarra erregionaleko 2. mailara igo da



ABUZTUA

LEZAMA Jon Larrinagak Frantziako Girondeko tourra irabazi du



EKAINA

AMURRIO Gaizka Barañanok bigarren postua eskuratu du Euskal Herria Mendi Erronka lasterketan



LAUDIO Bigarren sailkatu da Ibone Sanchez Ondarroako triatloian. 2014an hainbat triatloi eta duatloietan podiuma egin du



LAUDIO Genta Zabalen oroimenean ekintzak antolatuko ditu C.D. Laudiok



AMURRIO Zaroabe klubak Lehenengo Saskibalo Kanpusa antolatu du



LAUDIO Eskualdeko zaleek Bigarren Hockey Eguna ospatu dute



AIARALDEA Aiarako I Futbol Kanpusa ospatu da



AIARALDEA Bilbotik Laudiora arineketan, Burdin Hesiaren ibilbidetik



AMURRIO Arku Tiroko Eskola Ligako finala jokatuko da



UZTAILA

LAUDIO Jessica Gordo eta Angel Daza Europako Unibertsitate Karate Txapelketan arituko dira Budapesten



LAUDIO Igeriketa Laudioko igerilariak berriz lehenengo postuetan.



Emaizta paregabeak Euskal Herriko Udako Txapelketan



ARAKALDO Euskadiko Absolutuan lehiatuko da Garazi Larrakoetxea Espainiako Junior kategoriago 2. postua eskuratu ondoren



ABUZTUA

AIARALDEA ESAITek antolatutako Mendi Martxak Aiaraldea bisitatu du



LAUDIO Geraxane Ussia, lasterkaria, 400 metrotan brontzezko domina



IRAILA

LAUDIO Ganbegik bigarren postuan bukatu du Euskadiko kopa



IRAILA

AMURRIO Gorka Marañon Ultra Trail Mont Blanc frogan



URRIA

LAUDIO Penaltietan partida galduta bukatu da CD Laudioren Errege Kopako ametsa



ARRANKUDIAGA Ander Arandia eta Gorka Ibarrondo Baqué txapelketako bi finaletan



LAUDIO Aiaraldeko lehenengo Raid-a ospatu da



AZAROA

AMURRIO Artzikirol eskola berria Amurrión



LAUDIO Unai Albizua laudioarra Athletic-eko lehen mailako taldean jokatzen hasi da



LAUDIO Emakumezkoen atletismo talde bat sortu dute



AZAROA

OKONDO Ganekogorta Mendi Klubak "Okondo harana II. ibilaldi neurtua antolatu du



AMURRIO Nazioarteko XX. judo-txapelketa jokatu da Bañueta kiroldegian



ABENDUA

ARTZINIEGA Euskal Herriko sokatira txapelketa jokatu da



ARESPALDITZA Paula Garciak Karateko Euskadiko txapelketan hirugarren postua



AMURRIO CD Laudiok Aldundiaren diru laguntza jaso du eta jokalarien ordaintzak eguneratu ahal izango ditu



AMURRIO Ibai Ruizek Espainiako kick boxing txapelketa irabazi du aurten



AMURRIO Amurrioko Oinkariak atletismo taldeak 2. postua lortu du Arabako erdi-maratoi txapelketan



OROZKO Urtea agurtzeko herritar ugarik parte hartu dute San Silvestre duatloian



Urtekarria

KULTURA

OTSAILA

AMURRIO
Elexazarreko
aztarnategian aurkitutako
tresnen erakusketa
antolatuta dute



URDUÑA
Urduña arkupeetako
margolanak ikusgai dira



MARTXOA

LAUDIO
Euskal Herriko
Txistularien Asanblada
ospatu da



LAUDIO
Gastronomia museoa
behin betiko itxi dute



OROZKO
Auzolanean konponduko
dute Santa Marina
baseliza eta aterpetxea



LAUDIO
Guraso eta seme-alaben
arteko irakurketa kluba
jarriko dute abian

APIRILA

TERTANGA
Ubiros Errota
konpontzeko
auzolandegiak
antolatu ditu Gazteria
Zuzendaritzak



URDUÑA
Antzinako jolasak
sustatzeko ekimena
jarri du abian Adratan
etnografia elkarteak



URDUÑA
Foru plazako margolanak
ezagutzeko bisita
gidatuak antolatu ditu
turismo bulegoak

MAIATZA

LAUDIO
Ermuko eremua ikertzeko
akordioa sinatuko dute
Udalak eta Euskal Herriko
Unibertsitateak

MAIATZA

LAUDIO
Laudio Memoria taldeak
antolatutako kultura-
asteak aire-gerrak
izandako oihartzuna
jarriko du aztergai



URDUÑA/ARTZINIEGA
Memoria historikoa
berreskuratzeko ekimen
ezberdinak antolatu
dituzte

LAUDIO
Euskal Herriko Joaldunen
Festa ospatu da



AIARALDEA
2014an ESKUALDEKO
IDAZLEEK
ARGITARATUTAKO
LIBURUAK

MAIATZA
«Manuela» elaberria
argitaratu du Inma
Roiz okondoarrak



MAIATZA
Txani Rodriguez-ek
«Agosto» izeneko
elaberria argitaratu
du



AZAROA
Txani Rodriguezen
«Artzaina izan nahi
dut» ipuina argitara
eman da

ABENDUA
Xabier Santxotena
eskultoreak «El
Universo Santxotena»
liburua kaleratu du



UZTAILA

URDUÑA
Lendoñobeitik dorretxea
berreskuratu du



ABUZTUA

URDUÑA
Lehenengo aldiz ospatu
da Urdufolk Nazioarteko
lehiaketa eta jaialdia



TERTANGA
Gari jotzearen usadioa
ezagutzeko ekimenak
antolatu ditu Adratan
elkartekak



LAUDIO
Kepa Sojo zinema-
zuzendariaren «Loco con
ballesta» film laburrak
hainbat sari eskuratu ditu



IRAILA

ARTZINIEGA
Erdi Aroko azoka egin da
hamaseigarren urtez



OROZKO
Untzuetako gaztelua
bisitatuko da Bizkaiko
Jardunarean Europear
Jardunaldietan



LAUDIO
Mikel Ayllonek Igartza
saria irabazi du «Ez
tiro egin anbulantziak»
proiektuarekin



AMURRIO
Diego Martín Etxebarria
amurriarra Bilboko
Orkestra Sinfonikoa
zuzentzen ibili da berriro



URRIA

AIARA
Tino Soriano National
Geographiceko
argazkilaria ikastaroa
eskaini du Black
Kameraren eskutik



AMURRIO
Jose Miguel Llanok
argazki erakusketa berria
aurkeztu du Gasteizen



URRIA

LAUDIO
Santa Lucia Abesbatzak
kontzertu bira egin du
Katalunian, besteak beste
Bartzelonako Familia
Sakratuan eta Montserrat
Monasterioan



AZAROA

AMURRIO
Kevin Rodriguezen Per
un pugno di azioni eta
Superdown film laburrek
hiru sari jaso dituzte



AMURRIO
Aimara Antzerki Taldeak
umorea eta drama
elkartuko du bere azken
antzezlanean



AMURRIO
Aztarna elkarteak
hiztoriarri buruzko
pieza etnografikoen
erakusketarako bisita
gidatuak eskainiko ditu



ABENDUA

LAUDIO
«Berraurkitutako
begiradak» Laudio
margolarien erakusketa



ARTZINIEGA
Museo etnografikoa
mantenduko dute,
akordioa lortuta



LAUDIO
50. urteurrena ospatu du
Los Arlotek taldeak



LAUDIO
XVI. mendekoa izan
daitekeen dolorea aurkitu
dute Ermu inguruan



IRITZIA

Juan Jose
Ibarretxe
LEHENDAKARIA

—Talaitik



Kax-kax! Nor da?

“U rte berria naiz”. Urte berria bai, bai-
na ez al zen, bada, atzo hasi 2013a... hala
ere, ondo pentsatuaz, hobeto lehenbai-
lehen amaitzen bada, ea haizeak bes-
te alde batetik jotzen duen. “Bai, 2013a
hor joan da, ez hotz eta ez bero”. “Nola
“ez hotz eta ez bero”? Ez, ez, izugarria
izan da. Egunetik egunera munduan abe-
ratsak gutxiago, baina gutxi horiek abe-
ratsago; eta pobreak gehiago eta, gaine-
ra, pobreago. Hondamendi etikoa, eragile
batek baino gehiagok sortua: osasun-
makal dabilen ekonomiak, merkatuek in-
darrustu duten politikak eta aniztasuna-
ren eta giza eskubide indibidual eta ko-
lektiboen begirunerik ezak. Gertuago, PP
eta bere alegiazko oposizioa, PSOE, bes-
te aldera begira indarkeriaren elkarritze-
keta bidezko amaierari dagokionez, eta
baita Espainia mendearen hartua duen us-
telkeria lotsagabeari dagokionez ere.
“Kimu berdeak”, batez ere telebistetan
ernatzen direnak, darabiltzate lanik ez
duen hiritarren %27 hori animatzeko.
Are gertuago, etxean, ETA armak uzte-
ko ausardiarik gabe eta gu, euskaldunok,
itxuraz lasai, baina egiaz kezkatuak, oso
kezkatuak gure etorkizun soziopolitikoa
eta sozioekonomikoa dela eta.

“Beno, arrozoi duzu, behar bada, bai-
na gauzak aldatu egingo dira 2014an,
ziur egon”. Bai, hala diozue guztiek, bai-
na gero jaiegun hauetan hartzen ditu-
gun “konpromisoekin” gertatzen den bera
gertatuko da; dieta egiteko, erretze-
ari uzteko edo ariketa egiteko konpromi-
soak... asmo on huts baino ez dira iza-
ten. “Baina garai bakoitzak du berea eta
baikor izan behar dugu, baikotasuna
eta irtenbidea beti eskutik doazelako”.
Onartzen dut diozuna, zer ikusten duzu
2014an? Geuretik hasita, euskal etxe-
tik.

“Elkarrizketa bidezko amaieran aurre-
ra egingo dugu bakearen bidean”. Gusta-
tzen zait, bai, baina askotan entzun dut
halakorik. “Ez, ez, orainean behin beti-
koa izango da. Mugimenduak izango dira,
2013ko azken egunetan presoan adieraz-
penak erakutsi digu hala dela”. Bai, hori
positiboa izan da, eta bihotz-altxaga-
rria... segi, segi aurrera. “ETA armak uz-
teko prozesuari ekingo dio, eta hala egin-
go du uda aurretik”. Uau, data eta guzti,
meteorologo itxura hartzen dizut, baina
jarraitu. “Eta Espainiako gobernu prest
egongo da indarkeriaren elkarrizketa bi-
dezko amaiera negoziatzeko”. Bai, hori si-
nisten dizut; ez litzateke lehen aldia izan-
go, baina, hori bai, jendaurrean guztiz
kontrakoa esanaz.

Eta, autogobernua? Guztiok dakigulako
ez dela onā Espainiaren menpeko izatea
hezkuntza gaietan, politika kultural, eko-
nomiko eta sozialetan, etab. “Uiii, hobe
euskal autogobernuaz ez hitz egitea, ez
dut arazorik nahi”. Eta ekonomiaz? “Eko-
nomia hobeto, eskerrik asko”.

Eta gure auzoko herriaz, Espainiaz? eta
Europaz? eta munduaz? “Ufff hau saltsa!
Horretaz hobe hitz erdirik ere ez esatea,
no comment”.


Tira, ez didazu arrasto gehiegirik
eman... “Jakina, horixe da kontua. Badaki-
zu, gure lanbidean hobe da taldean, guz-
tiak batera nahastea, bakoitzak bere al-
detik asmatzea baino”. Ono da, ondo
da... sartu eta jarri zeure gogara; zerbait
prestatuko dizut.

AIARALDEA
ARGITARATUTAKO
DISKOAK

UZTAILA
Igor Arzuagak 4 diska
argitaratu ditu 2014an



APIRILA
Mandoilek taldearen
diska



ABENDUA
Hutsa bikotearen
Astuh disko berria



ABENDUA
Yogurinha borovaren
BAI SI YES diskoa



Five Corners-en
lehenengo lana



Mankaos-en disko
berria



_kultura

_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak




ZINEMA
THE STORY OF WIKILEAKS
Lander Arteaga.

"Gure proposamenaren, Sekretuak lapurtzen ditugu: Wikileaksen istorioa dokumentalaren, zuzendaria Alex Gibsen dugu, dokumentalista petoa bera. Oskar sari baten irabazle Taxi to the dark side ekoizpenarekin..."



MUSIKA
KEU AGIRRETXEIA
Endika Dlaz.

"Nekez aurkituko dugu Euskal Herria mailan Keu Agirretxearen pareko ibilbidea daukan kitarjole-rik. Esparru desberdin asko ukitu ostean badirudi kitarjole bakarlari eta akustiko gisa gustura ikusten duela Keu bere burua..."



BIDEOA: Arabako lehen dolarea izan daitekeena aurkitu dute Laudion.
Datazioen arabera, XVI eta XVII. mendeen artekoa da. Bideoa ikusgai gure web orrian



Mankaos taldeak otsailean aurkeztuko du azken diskoa Argazkia: Mankaos

Autoekoizpenak lau fruitu berri eman ditu eskualdean

ERREDAKZIOA |  Endika Diaz

Lau izan dira azken hilabetetan diskoa edota maketa berriak argitaratu dituzten eskualdeko taldeak: Habemus papam, Hutsa, Mankaos eta Igor Arzuaga.

Alde batetik, Habemus Papam punk-oi talde amurriarrak bere lehendabiziko maketa argitaratu zuen urrian, "Ekintza Zuzena" izen-

burukoa. Habemus Papam 2012. urtean Amurrioren sortutako punk-oi boskotea da. Taldeak aurreko urrian argitaratu zuen bere lehen maketa, karga politiko handiko hamar katek osatutakoa. Maketa taldeak bere lehendabiziko maketa argitaratu zuen urrian, "Ekintza Zuzena" izen-

Bestalde, 2011. urtean sortutako Hutsa taldeak bere hirugarren

diskoa argitaratu zuen azaroan, "astuh" izenburukoa eta zazpi katek osatzen dutena. Eriz Perez gitarrista urduñarrak eta Balmasedako Maria Rivero abeslariak osatzen duten taldearen formatua guztiz akustikoa da, bere kanteetan pop doinuak nabarmentzen direlarik. Bere hirugarren diskoaren ekoizpenari dagokionez, berriro ere Kike Moraren gidaritzapean grabatu du Hutsak diskoa, oraingoan taldeak Javi Palaciosen laguntza izan duelarik nahasketen arloan.

Igor Arzuagak eta Javi Cepedak, aldiz, "Bi" lana sareratu berri dute. Pianoa eta gitarra nahastuz, hamar kanta sortu dituzte. Lana, www.belearenhegoak.com webgunean entzun liteke.

Mankaos talde audioarrak otsailean aurkeztuko du "Memoria de la procedencia" diskoa. Rock eta noise alternatiboa jorratzen dute. Duela 10 urte maketa bat atera zuten. Urte asko badaramatzate ere kaleratzen duten aurreneko lana da. Dena dela, abesti berriak sortzen ari direnez, bigarren disko bat ateratzea gustatuko litzaiekeela adierazi dute. Taldeari dagokionez, gehienak Audiokoak dira. Grabaketa, diseinua eta sorkuntza beraiek egin dute. Datozen hilabeteetan diskoa aurkezteko kontzertuak emango dituzte.

+ info: **bideoa:**
Musikaren txokoa:
Igor Arzuagari Mara diskoaz egindako elkarrizketa



Tango gaua egingo dute Arrankudiagako Gizarte Etxean

Urtarrilaren 24an Tango gaua egingo dute Arrankudiagako Gizarte Etxean.

Tangoak entzun eta dantzatzeko aukera ere egongo da. Izan ere, 20:00etatik aurrera Romo's Aire taldeak kontzertua eman- go du.

Otsailean, aldiz, truke azoka egingo dute. Lema, "ekarri behar ez duzuna eta eraman behar duzuna" izango da.

"Iñaki Plazak & Band" proiektuaren aurkezpena Amurrio antzokian

Iñaki Plaza musikariak proiektu berria aurkeztuko du larunbatean Amurrio antzokian. Kontzertua 20:00etan hasiko da. Sarrerak agortu egin dira. Aurreratu dutenez kolaboratzaileak izango dira: Anton Latxa, Xabi Zeberio (Oskorri), Yalma taldea, folk galiziarra egiten duen talde belgikarra...

"Ekhi" izena izango duen diskoa prestatzen ari da Plaza, Udaberri-rako kaleratzea espero du.

KLIOREN BASOA: Euskaldunak islandian

Entzun Aiaraldea Irratian historiaren inguruko KLIOREN BASOA irratsaioa



MATEO
Pagazaurtundua
IRAKASLEA

_Lurpetik

Azalpenik ez

Tomas Zubiaur, aurreko albaitari bera Laudion medikuaren laguna zen, lagun handia.

Mediku jaunak, gaixoen bisitak baserriz baserri egiteko zaldi zuri eder-ederra zuen, horren izena (ez medikuarena ezta zaldiarena ere) gogora ekartzea ez nuke nahi une honetan, ez baita beharrezkoa.

Zaldi zuri eder-ederra makaltzen hasi eta gaixotu zen. Mediku zaldunak albaitari arinen albaitari lagunarengana eraman zuen lau hankadun ia eder ohia.

Tomasek egin beharreko guztiak egin zituen lagun minaren garrara biziaren artean mantentzeko.

Zoritxarrez, ez zuen lortu. Handik egun gutxira zaldi zuri eder-ederra izan zena zendu zen. Mediku jaunaren tristura eta amorrua esponentzialki hasi zen lehenengoa tristura bere aberetxoagatik, bigarrena amorrua albaitari ezgauza lagun ohiaigatik. Itsutu ez baziren ere, elkar ikusi ezinean ibili ziren luzarotan.

Urtebete edo geroago Tomas, medikuaren kontsultan agertu zen erdi gaixo.

- Egun on On Tomas, zer daukazu? Ez badidazu esaten zer gertatzen zaizun... ezin dut ezer egin -Medikuak haserre-.

Orduan Tomasek astiro erantzun zuen:

- Zure zaldiak ere, ez zidan inolako azalpenik eman! Eta ezin ezer egin!

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN ETA GUK ZURI ERE OPARI SU TA GAR TALDEAREN 'BIZIRIK GAUDE' DISKO BERRIA

BEHIN OPARITU 11 ALDIZ JASO URTE OSOAN GOZATZEKO!

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN. MUSIKA, ZINEA, SEXUA, LITERATURA, INTERNET, ARTE ESZENIKOAK, KIROLA, ARGAZKILARITZA...

20€ URTEAN MUNDUAK

gaztezulo

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com

_Herriko plaza

_agurrak



Jurgi

Urtarrilaren 27an 6 urte egiten dituzulako, Zorionak aita eta amaren partez! **Encina eta Abel**



Izaskun

Izaskun, izaskun txibiri gongon!!! txorizo onak!!! 28 belarri tirakada zure lagun koadrilaren partez. musus **Lagunak**



Eñaut

Zu bai zu! Eta danborrada egunean jai! Zorionak! Ondo pasa familia eta lagunekin! Musu handi bat eta 6 belarri tirakada! **Familia**



Arkaitz

Zorionak!!!! Berezien taldetik 28 belarri tirakada, zu be berezi bat zarela! **Lagunak**



_BIDALI ZUREA!

Bidali zure mezua eta argazkia agurrak@aiaraldea.com -era urtarrilaren 27 baino lehen!

_botikak

(GUARDIAKO FARMAZIAK: 2.500 biztanleetatik beherako udalerriek ez dute guardiarik egiten.)

URTARRILAK 16

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Amurrio: YARZA (Elexondo, 33)

URTARRILAK 17

Areta: AIS (Gasteiz kalea 2)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

URTARRILAK 18

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

URTARRILAK 19

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

URTARRILAK 20

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

URTARRILAK 21

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Amurrio: QUIJANO (Landaburu 7)

URTARRILAK 22

Laudio: MENOYO (Ugarte 5)
Amurrio: HERNANDEZ (Elexondo, 11)

URTARRILAK 23

Laudio: EGUIA (Zumalakarregi 13)
Amurrio: PEREDA (Landako 28)

URTARRILAK 24

Laudio: FUERTES (Kamaraka 4)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)

URTARRILAK 25

Areta: AIS (Gasteiz kalea 2)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)

URTARRILAK 26

Areta: AIS (Gasteiz kalea 2)
Arespalditza: CACERES (Udaletxe 19)

URTARRILAK 27

Laudio: RIVERA (Ibaizabal 1)
Amurrio: YARZA (Elexondo, 33)

URTARRILAK 28

Laudio: FUERTES (Ardantzazar 9)
Artziniega: FERNANDEZ (Encina 6)

URTARRILAK 29

Laudio: SOLAUN (Lamuza 3)
Urduña: IBARROLA (Foru Plaza 12)

XI. TOPALDIA

Geure ardura pertsonal eta kolektiboa aktibatzen

URTARRILAK 30, OSTEGUNA
LANDAKO ELKARTEGIA
DURANGO

Izen-ematea
urtarrilaren 26ra arte
topaldia.topagunea.org
30€ bazkaria barne

Antolatzailea
Euskaltzateen topagunea
Babesleak
BFA DFB
GUZKO JAIALARITZA GOBIERNO VALCO

_merkatu txikia

ALOKAIRUAN

PISUA LAUDION
Jose Matia kalean dago, 2 gela, 2 komun, trasteroa eta garajea.
620137027

SALGAI

OHE ARTIKULATUA
Hilabete batez erabilia. 90X1.90 neurrikoa. Prezioa jakiteko mezu pribatua bidali.
<https://www.facebook.com/javi.gonzalezcampos>

UMEENTZAT SEGURTASUN BARRERA
Prezioa: 25€
<https://www.facebook.com/elias.gallastegialba>

BIGARREN ESKUKO TXELOA
Umeentzako egokia
gibarluzea@gmail.com

POWERWING
Zaindua eta gutxi erabilia
Prezioa: 45 euro
oihanearn@hotmail.es

UMEENTZAT TABLET-A STORIO-2 (2013)
Kargadorea, 6 joko, 2 funda eta babesteko psilikonarekin
Prezioa: 100€
679260533

TXORI KAIOLAK
Karnaba eta kanarioentzat
Prezioa: zehazteke
942650516 (Curro)

TABERNETARAKO ONTZITEGIA
Negozioa ixtearen ondorioz kaferako, kubatetarako eta garagardotarako edalontziak.
Prezioa: zehazteke
663346745

BILA

BINILO DISKOAK
Urduñan bizi naiz baina Amurrio eta Laudiotik pasa naiteke.
Ernesto Navarro
amliser@hotmail.com

ALOKATZEKO PISUA LAUDION
672250983

LAN ESKAINTZAK

KLASE PARTIKULARRAK EMATEKO PERTSONA
LH eta DBH mailetako magisteritza diplomatura. Esperientzia handia. Talde txikiak egiten ditut prezio oso ekonomikoan.
636279579

etxaurre

inmobiliaria

DUPLEX-A SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 198.000 €
96 m², 3 logela, 2 bainugela, komuna, kanpoaldera, garajea, trasteleku, bizitzera sartzeko, prezio negoziagarria.
Eref.: 167392

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 180.000 €
64 m², 2 logela, bainugela, egongela kanpoaldera, igogailua, balkoia, eraberritza, prezio negoziagarria.
Eref.: 167382

ATXIKITAKO ETXEA SALGAI ARRESPALDITZAN
Prezioa: 367.000 €
160 m², 4 logela, 3 bainugela, bi autoentzako garajea, txokoa, terraza, 298 m²-ko lorategia, prezio negoziagarria.
Eref.: 167350

ATXIKITAKO ETXEA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 340.000 €
200 m², 3 logela, 3 bainugela, terraza, txokoa, garajea, 2010. urteko eraikuntza.
Eref.: 167333

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 192.000 €
82 m², 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, kanpoaldera, igogailua, trasteleku, berritutako etxebizitza.
Eref.: 167202

PISUA SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 89.750 €
68 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, altzariz hornitua, trasteleku, berrituko, negoziagarria.
Eref.: 152893

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 220.000 €
107 m², 4 logela, elbarrituei egokitutako 2 bainugela, kanpoaldera, balkoia, trasteleku, igogailua, garajea.
Eref.: 143421

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_herriko plaza

_agenda

01.16 OSTEGUNA

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
"Herdatutako emozioak"
Katekesi aretoan

01.17 OSTIRALA

15:30 LAUDIO
AZOKA
Ikasleentzako orientazio
azoka akademikoa
Laudio Ikastolan

19:00 AMURRIO
HITZALDIA
"Etorkizunez kargatutako
arma dugu zinema"
Katekesi aretoan

19:30 ARETA
TXAPELKETA
Pilota partida
frontoian

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Lo Verde del puerro
Drumgorrin

01.18 LARUNBATA

09:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Kanpai errepika
Elizan

10:00 AMURRIO
AZOKA
San Anton de Armulu
azoka
San Anton plazan

11:00 URDUÑA
ERAKUSKETA
Gazte Asanbladaren
historia bideo eta
argazkietan
Gaztetxean

12:30 AMURRIO
SAN ANTON EGUNA
Enkantea
San Anton plazan

14:00 URDUÑA
GAZTETXE EGUNA
Trikipotea eta bazkaria

18:30 URDUÑA
GAZTETXE EGUNA
Five Corners, Ukan, Kasu,
eta RPV taldeak
Gaztetxean



20:00 AMURRIO
KONTZERTUA
"Iñaki Plaza & band"
proiektuaren aurkezpena
Amurrio antzokian



Herrian eta gaztetxean
20:00 ARTZINIEGA
HITZALDIA
Gaixoaren partehartzea
sendatze prozesuan
Museo etnografikoan

20:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Malcolm Scarpa
Keska tabernan

01.19 IGANDEA

12:30 OROZKO
SAN SEBASTI EGUNA
Meza eta trikitilariak
San Sebasti auzoan

01.20 ASTELEHENA

17:30 LAUDIO
HITZALDIA
Jolastu Gabe hilko
nintzateke

Erabilera anitzeko gelan

19:00 LAUDIO
AURKEZPENA
Gure esku dago ekimena
Erabilera anitzeko gelan

01.21 ASTEARTEA

17:30 LAUDIO
HITZALDIA
Nire etorkizuneko
bidearen protagonista
Erabilera anitzeko gelan

01.22 ASTEAZKENA

17:30 LAUDIO
HITZALDIA
Gazteen aisialdia,
garapenerako bide eta
alternatiba
Erabilera anitzeko gela

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Drogak, politika eta
Euskal Herria
Gure aukeran

01.23 OSTEGUNA

17:30 LAUDIO
HITZALDIA
Ez dut garraxirik egin
nahi!
Erabilera anitzeko gelan

01.24 OSTIRALA

20:00 ARRANKUDIAGA
TANGO GAUA
Romo's Aire taldearen
kontzertua
Gizarte etxean

22:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Fetitxe eta Tutem Come
on
Sorgin tabernan

22:30 ARETA
KONTZERTUA
Hesian akustikoa
Kultur etxean

23:00 LAUDIO
KONTZERTUA
M.C.D eta Tabula
Drumgorrin

01.25 LARUNBATA

09:00 ARESPALDITZA
IKASTAROA
Zuhaitzak nola podatu
udaletxean

11:00 LAUDIO
KOLEKTIBOEN AZOKA
Umeen jolasak, gena,
kitarra eta maskara
tailerra
plazan

12:00 LAUDIO
IKUS-ENTZUNEZKOA
Palestinari buruzko
bideoa
Erabilera anitzeko
aretoan

13:00 LAUDIO
KOLEKTIBOEN AZOKA
Mankaosen kale
kontzertua eta dantzak
plazan

01.26 IGANDEA

09:00 OKONDO
IBILALDIA
Idubaltza mendira
Plazatik

10:30 LAUDIO
TXAPELKETA
Laudio Ikastola krossa
Lamuza parkean

11:30 LAUDIO
TXAPELKETA
Laudio VII. Herri krossa
Herrian zehar

18:30 LAUDIO
ANTZERKIA
Oihalak zabaltzen:
"Mamma mia!"
ULHEn

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Laudioko musika banda
elizan

_ikusmiran

ZINEMA

01.18. LARUNBATA

"LAS BRUJAS DE
ZUGARRAMURDI"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan (3€)

01.19. IGANDEA

"RODENCIA Y EL DIENTE DE
LA PRINCESA"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean (3.6€)

"PLAN EN LAS VEGAS"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean (4.8€)

01.20. ASTELEHENA

"PLAN EN LAS VEGAS"
AMURRIO ANTZOKIA
20:00etan (3.6€)

01.25. LARUNBATA

"PLASTIC PLANET"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan (2€)

01.26. IGANDEA

"FUTBOLIN"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean (3.6€)

"TRES BORDES DE MÁS"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean (4.8€)

01.27. ASTELEHENA

"TRES BORDES DE MÁS"
AMURRIO ANTZOKIA
19:30ean (3.6€)

BEREZIAK

SAN SEBASTIAN EGUNA

OROZKO

01.19. IGANDEA. 12:30ean
Trikitilariak, txosna eta zozketa
TOKIA: San Sebasti auzoa

SAN ANTON EGUNA

BARANBIO

01.17. OSTIRALA. 12:00etan
Meza
TOKIA: San Anton baselizan

01.18. LARUNBATA. 19:30ean
Igel txapelketa
TOKIA: San Anton baselizan

01.18. LARUNBATA. 20:30ean
Herri afaria (12€)
TOKIA: San Anton baselizan

01.18. LARUNBATA. 21:30ean
Poxpoloaren enkantea
TOKIA: San Anton baselizan

01.18. LARUNBATA. 23:00etan
Errormeria
TOKIA: San Anton baselizan

AMURRIO

01.19. IGANDEA. 10:00etan
Azoka eta enkantea
TOKIA: San Anton plazan

OTAOLAKO JAIK

OKONDO

01.20. OSTIRALA. 12:30ean
Meza
TOKIA: Otaola auzoan

01.25. LARUNBATA. 13:00etan
Meza
TOKIA: Otaola auzoan

01.25. LARUNBATA. 14:30ean
Herri bazkaria eta zozketa
TOKIA: Otaola auzoan

01.25. LARUNBATA. 16:30ean
Eukaliptuaren jaitsiera
TOKIA: Otaola auzotik

_ezin galdu



PUNTAZO EGUNA AMURRION: Amurrioko jai koadrilek Puntazo Eguna antolatu dute datorren larunbatera-ko. Besteak beste, bazkaria, gynkana, batukada eta kontzertuak (Fetitxe, Versen eta Akerbeltz) egongo dira.

_merkatua

BASERRITARREN AZOKAK
AIARALDEAN

OSTEGUNA

> LAUDIO Herriko Plazan
DENETARIK

OSTIRALA

> AMURRIO San Anton plazan
DENETARIK

LARUNBATA

> URDUÑA Hileko 1º larunbata
Foru plazan

> OROZKO Herriko Plazan
OGIA ETA GAZTA

PREZIO ORIENTAGARRIAK
MERKATUETAN

BARAZKIAK

Azalorea edo aza	1-1.2 €/alea
Letxuga	0.90-1 €/alea
Azelgak	2 €/kg
Brokolia	1-1.2 €/alea
Arbia	1 €/alea
Eskarola	1€/alea
Kalabaza	2 €/kg
Indabak	8-10 €/kg
Porrua	1.50 €/sorta
Kiwia	3 €/kg
Intxaurrak	6 €/kg

BESTEAK

Arrautzak	3 €/dozena
Gari ogia	2.30 €/kg



Leire Larisgoitia

“Telebista ‘kutxa tontoa’ baino leihoa da. Paisaia gustuko ez baduzu pertsiana jaitsi dezakezu”

LEIRE LARISGOITIA (Laudio, 1981) telebistako ekoizlea da. “Salvados” programan egiten du lan. Gakoa zaborra bereiztean dagoela dio, gustua eta kalitatea daukaten gauzak topa daitezkeela.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren
Leire Larisgoitiak urteak daramatza telebistako grabaketak egiten. Pantailaren beste aldean erakutsi du.

“Salvados” programan parte hartzen duzu. Zertan?

Duela 10 urte Bartzelonara joatea erabaki nuen ikasitakoaz bizitzeko -ikusen-tzunezkoak-abentura bila.

Hasieran enpresa bateko komunikazio saileran lanean hasi nintzen.

Denbora-



bora librea film laburrak, bideo-klipak... egiten nituen. Oraindik ere tarteka egiten ditut!

Egun batean TV3 kateko “Toca el 2” Date el boteren bertzio katalanarako elkarrizketa egin zidaten eta geroztik telebistako programa ezberdinak egin ditut.

Pelikularen bat edo beste ere egin dut.

Salvados programan bi urte eta erdi daramatzat. Grabaketetako ekoizlea naiz. Elkarrizketak egitera talde txikia joaten gara: errealizatzailea, kamara, soinu teknikaria, Jordi eta ni. Nire lana grabaketarako beharrezko elementuak bermatzea da: lekuak, baimenak, bidaiak, materiala...

Txikitari ere telebistako lan-gile izan nahi zenuen?

Komunikazioa eta zinema asko gustatzen zitzaizkidan, telebistak arreata pizten zidan. Kameraren atzean lan egin nahi nuen, produkzioaz ezer ez nekienean ere.

Lanean bitxikeriak ere ikusiko zenituen... Baten bat kontatzerik?

Julian Assange Ekuadorreko enbaxadan, Londresen elkarrizketa sekulako abentura izan zen.

Ordu bateko tartea eman zion bere prentsa arduradunak. Kronometroarekin aldamenean izan genuen, bost minuturo erlojuaren pantaila erakusten zigun. Ez zen elkarrizketa lasaia izan.

Beste behin txerrien korta batean grabatu behar izan genuen. Sartu aurretik eta bukatzerakoan dutxatzea behartu gintuzten, txerriei gaixotasunak ez pasatzea ziurtatzeko. Hori ez da grabaketa egunetan ohikoa!

Kameraren aurrean ala atzean, non egoten zara gusturago Zer-gatik?

Kamara atzean egotea beti da erosoagoa. Beti egon naiz hor, eta hori da egiten dakidana.

Beti aurpegi ona jartzea ez da erraza, batez ere egun txarra duzenean.

Nik ez dakit egin ahalko nukeen, baina ez dut sekula frogatu. Errespetu handia ematen dit.

Zer esango zenieke telebista “kaxa tontoa” dela diotenei?

Telebista gogoko dutenak errespetatzen ditut, ez dutenak ez. Posible da erabilera arduratsua bat egitea. Ez da bizitzeko ezinbestekoa. Telebista kutxa baino leihoa dela esango nuke, paisaia ez baduzu gustuko beti duzu pertsiana jaisteko.

Zer du telebistak ba hainbeste ordu begira egoteko?

Gaur egun kanal eta aukera asko ditu. Ikasteko gauza interesgarriak ere. Zaborra bereiztean dago gakoa, entretenitu eta ekarpenen bat egin diezagukeen eskaintza bilatzean. Gustua eta kalitatea duten gauzak topa daitezke.

Zein da zuzentzea gustatuko litzazukeen programa perfektua?

Duela urte asko galdetu balidate bidaiatzea eta egunerokotasuna duten gaien inguruko ikuspuntu ezberdinak dituen programa bat erantzungo nuke. Sekulako zortea dut gustuko dudana programa eta lan egiteagatik. Gaur egun, amets bat da.



Itziar
Urkijo Cela
PSIKOPEDAGOGOIA
_Leihotik

Oximoroia

Bizitza, oximoroiz osatuta dago. Oximoroia (grk. oxymoron) sarkasmo zorrotza itxurazko zentzugabekeria baten azpian ezkututzen den figura literarioa da. Adibide gisa, tragikomedia, euri lehorra, gazi-gozoa, ia-beti... Txikitatik jasotzen ditugu bateratasun garrantziaren inguruko mezuak, familiarren beharra, taldearen indar eta kemena, herriaren eragin berezia... baina txikitatik ikasten dugu lehenengo pertsona ni naizela, bigarren pertsona zu eta hirugarren pertsona hura. Hau baino oximoroi handiago-rik? Ez dago. Edertasun hilezko-rraz ari gara, maitasun itsua aipatzen dugu, baina badaezpada ere, gorputz lirainak eraldatzen ditugu era digital batean eta duela urte batzuk soslaik txikitzen baziren orain saiheztak estali egiten dira osasunaren ize-riean. Tori, beste oximoroi bat. Behin eta berriro egiten dugu oximoroiekin estropezu, gizaki garen baitan era berean. Baina topa egiteaz aparte zeozer ikas dezakegu behaztopa honekin, urak dakarrena urak daro- la, gauden egoeran gaudelarik, den ura delarik. Ahaztu gabe, gu hemen gaudela, bai, lehenengo pertsona plurala, beti gu hemen.

EUSKARAZ ERE, NATURALITASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Laboral Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

Bada beste modu bat.